



TXOMIN GARMENDIA

BIZITZAREN ARIAN

BIZITZAREN ARIAN

AUSPOA LIBURUTEGIA
(160)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

TXOMIN GARMENDIA

BIZITZAREN
ARIAN

AUSPOA LIBURUTEGIA

1982

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)
Fotokonposatzalle: Orena - Lasarte
Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz
ISBN 84-7158-102-7
Depósito Legal: S. S. 444/82
Agosto 1982

LENEN AGURRA

Denbora pasa liburutxoan bukatutakoan, beste bat ere egin bear nuala esan zidaten. Nundikasi? Nola, ni bezelako ez-jakin bat?

Bertsoetarako ertenaldien ondoren zerbait idazten nuan, nere gustorako: an botatako bertsoeren batzuk edo abar. Baita egunkarietan da errebistetan arkitutako zerbaiti bertsoak jarri ere. Geren arteko gertakizunen bat izan zitekean ortarako gai. Bizitzaren arian beti dago zerbait berri.

Orain baño len esan izan dedana: ez naizela bertso-jartzalle argia. Baña nagitasunak utzita, ara zertaraño iritxi naizen.

Badakit nola-alako pranko izango dala.

Baña danetik bear omen du mundu ontan, da baita izan ere.

Orain *Denbora pasa* liburuak badu bere senidetxoa, ta biak ondo ibilli ditezela, gu askotan ibiltzen geran bezela.

Apirillak 26, igandea, 1981'an.

Bertsolarien andreen eguna ospatzen degu. Ni ere or izandu naiz, andrerik gabe baña.

Bide batez, bertsolariai ainbeste on egindako Jose Salaberria'ri esku-erakutsi eder bat eman genion.

Goizean, Etxeberria ta biok Intxaurrondo'n kantatu genduan, *Auzoegintza* edo *Euskera auzoetara* programaren barruan.

Ondorenean joan giñan bazkaltzera, *Bar Xanti* jatetxera. An juntatu giñan bertsolari geienak. Berrogei bat emakume ere bai. Bazkaldondo ederra genduan.

Gañera, arratsalde ortan, Errealak Gijon'en *Liga*'ko Txapela irabazi zuan. Etzan giro Donosti aldean. Esan zitekean Euzkadi'ko arazo edo problema danak zuzendu zirala.

Zorionak Erreal orri. Euskal izen bat ez ote du merezi, ainbat euskaldunek segitzen dion ekipo batek?

Egun artako eguardian, baita ere, Gazteiz' en pelota-txapelketako azken aurreko partidua jokatu zan, ondoren onekin: Erretegi II: 22; Maiz II: 12.

Orain, txapelketa onen azkena, ezeren okerrik ez dala, Erretegi II'garrenak eta Garzia Ariño IV'garrenak jokatuko dute.

Azken txapelketako partidu baten aurrean Basarrik irratiz kantatu zuana kantatu bear nik ere:

Bi pelotari aurki ditugu
alkarren leia bizian,
batek galeran ertengo du ta
besteak irabazian.

Orain artean ala izan da
jokatutako guzian,
onenak irabazi dezala
Jaungoikoaren grazian.

Egun ortan betetzen ziran urteak, Gernika alemanak erre zutela ere. Egun señalatua, beraz.

* * *

Maiatzak 3, igandea, 1981'an.

Santa Krutz eguna, ain zuzen. Urnieta'n bada soziedade edo alkarte bat, Santa Krutz izena duana. Urtero bezela, bertara joan giñan bazkaltzera. Mitxelena, Ibarbia ta ni giñan aurtan. Alkartasun-bazkari bikaiña ta bazkalondo alaia igaro genduan.

Bazkari aurretik izan zan zerbait, neri biotza ikuitu zidana: emakume batek aita gure bat errezatu zuan da guk erantzun. Onekin ez det esan nai ni iñor baño santuagoa naizenik.

Nere lendabiziko bertsoa, gutxi gora-bera, onela izan zan:

Aita gure bat esan ondoren
lengo oitura zarrera,
zorioneko bazkariari
eman diogu sarrera.
Bertsolariak bildu gerade
Urnieta'ko larrera,
broma piska bat komeni zaigu,
jaunak, emendik aurrera.

Beste aldetik, Tolosa'n aizkora-eguna zan. Goizean, Juanarena naparra ta Arrospide Leaburutarra neurtu ziran aurrez-aurre, amabina irurogei ontzakotara, marka izugarri bat egiñez ta Juanarena irabaztun geldituaz.

Denborak: Juanarenak, amabi egurrak, ogei ta amaika minutu ta ogei ta amairu segundo; Arrospide'k, iñoiz plazaratu gabea, ogei ta amairu minutu ta ogei ta emeretzi segundo.

Arratsaldean, berriz, Arria II'garrenak marka arrigarri bat jarri zuan, berak bakarrik amabi irurogei ta amabi ontzakotara (oin bikoak).

Denborak berrogei ta sei minutu ta segundo bat.

* * *

Maiatzak 7, osteguna, 1981'an.

Gaur ere zerbait idazteko gogoia badet eta artara noa.

Berrobi'tik kilometro bat pasatxu, bada, edo obeto esateko bazan, paper-fabrika aundi bat. Datorren illean 15'an, bost urte ateak itxi zituela, lareun langille ta geiago kanpoan utzirik.

Zaragueta'tarrena zan, Beotibar'ko papelera danak deitzen bagenion ere.

Uste gabeko gauz pranko gertatzen ari da gure bizitzan, da au ere bai. Papelera onek inguru ontako onentxoaren sona zuan, da nagusiak ere oso aberats-pama zuten, Zer gertatu zan? Egia au da: Papelera itxi zala, ainbat langille kalean utzirik.

Geroztik olako pranko gertatu da. Ta aurrea jarraitzeko asmoa duala ematen du denborale onek.

Ta orain zer gertatuko ta pabrika zan leku artan bertan, emakumeen salan ain zuzen, dantza-leku bat, *baile* bat, gaur idikitzen dute, illuntzeko zortziretan. Aundia eta bikaiña omen da; milloi asko kostea.

Au entendituko duanak ere ez du makala bearko: dantza-leku eta gastu-bide ugariak idikitzen nun-nai, ta gazteriari etzaio pezta bat irabazteko aukerarik ematen. Denbora izango da testigu.

(Egia da pabrika ortan beste taller txiki batzuk zabaldu dirala).

Izen zoragarri bat ere jarri diote: *Gure txokoa dantza-leku*.

Danon onerako izan dedilla. Baña lengoan, letrero oiei begira nagoala, bertso auxe pentsatu nuan:

Goiko mallara iritxitzeko
zaletasuna ugaldtu,
mundua zero biurtu nairik
sinismenean argaldtu.
Pabrika eta tallarrak itxi,
dantza-lekuak zabaldu,
gure Euzkadi maitagarriak
etorkizunik bai al du?

* * *

Maiatzak 10, igandea, 1981'an.

Gaur arratsaldeko bostetarako Andoain'era joateko deia genduan Mitxelena'k eta biok.

Santa Krutz jaiak jarraitzen zuten. Fubol-zelaiean zan jai-aldia: motosierra-zalea trontzarien aurka; Gorostidi arri jasotzen; Arria II ta Mintegia aizkoran; ta gu, bertsolariak.

Jende-puska bat sartu zan da jai-aldi polita erten zala esan bear. Baña Andoain'go kaleetan gabiltzala, ez genion ematen euskal erri baten antzik. Erdera nagusi kalean eta tabernan.

Oraindik euskera salbatuko dala diotenak erruz dira. Ala izan dedilla.

Beste garai bat izango zan, Txirrita zana An-

doain'era etorri ta mutiko bati galdera au egin zionekoa:

– Mutiko, nun zegok emen sagardo ona?

Mutikoak:

– Peñanian.

Ta Txirritak:

– Txarra izaten dek ba or geienian.

* * *

Maiatzak 15, ostirala, 1981'an.

San Isidro eguna, Irun'a joateko deia genduan Koxme Lizaso ta biok.

Goizean, Berrobi'ko plazara nijoala, Koxme etortzekoa bainuan billa, egur txikitzen ari zan gizon bat. Alkar-izketa au izan genduan:

Nik:

– Egur txikitzen, gizon?

– Bai; emen ari gaituk zeoze.

– Emen ikusten diat nik gizon arrotz bat. Nungotarra dek ori?

– Ori nere koñadoa dek, ta gaizki zebillek eztarritik operatuta. Gure etxean zegok.

– Ezkongai al dago?

– Ez; soltero.

– Bapo, motell! Gero arte.

Ala, Lizaso etorri zan da joan giñan Irun'go San Martzial'a. An, lenengo, meza santua entzun ango basarritarrakin.

Bina bertso kantatu giñuzen eskeintzera-koan. Nereak onela ziran, gutxi gora-bera:

Egun on bati asera emanda,
Jauna, gatoz Zuregana,
badaukagu zer eskeñia ta
badaukagu zer esana.
Gure Euzkadi sekula ez da
zoriontsua izana,
baña benetan lotsagarri da
orain gertatutzen dana.

O, San Isidro, zeru aldetik
entzun zaidazu arretan,
gaur ez baitegu iñork bizi nai
sinismenaren garretan.
Olatu onek ito ez gaitzan
sasitan edo larretan,
lagun zaiguzu nekazariai
Euskalerriko lurretan.

Meza ondoren bertso-saio bat egin genduan. Gero amaiketakoa, erriko agintariak buru zira-la. Urrena, Irun'en, alkartasun-bazkaria, *Toki Alai* jatetxean. Giro ederra izan zan. Guk ere geren aldetik egin genduan alegiña.

Izan ere, badago oraintxe gaia bertsolarien-tzat. Besteak beste, lengo asteartean Aita San-tua tirokatu dute iltzeko asmotan. Nere bertsoe-tako bat onela izan zan:

Iñor ez gaude emen konforme,
nun-nai gorrotoa merke,
ainbat burruka, ainbat eriotz,
gerra baten ainbat urte.
Ta azkenean Aita Santua
balaz or josi digute,
mundu ontako agintariak
zer pentsatua badute.

Beranduegi gabe aldegin genduan; da, etxera gatzela, erri jator bateko batzokian sartu giñan, baxoerdi batzuk artzera. Ain zuzen, batzoki orren zabalkundean gu izan giñan, orain bi urte inguru.

Iru neska gazte zeuden, da irurak erderaz itzegiten. Beste bi gizonezko sartu ziran gero, ta aiek ere berdin.

Triste atera nintzan. Beste batzoki guzietan bezela, an zeuden Sabino Arana, Jose Antonio Agirre, Jesus Maria Leizaola, Karlos Garaikoe-txea ta abarren kuadro edo erretratoak. Ikurriña zer esanik ez. Baña neretzako danak alperrik dira, gure izkuntzak ez badu bizirik. Erri bat bizirik dagoan ala ez, izkuntzan ezagutuko degu.

Andik erten da kalean gabiltzala, emakume gazte batek ezagutu giñun. Emakumeak:

– Zer zabiltzate?

– Irun'en giñan ango basarritarrakin.

– A!...Gaur San Isidro. Baña San Isidro ez da gure basarritarren jaia. Ori madrileñoena da.

Gu, berriz, madrileño orri jardun giñan

otoitzean Euskalerrri ta emengo basarritarren alde.

Zenbat buru, ainbat aburu!

* * *

Maiatzak 23, larunbata, 1981'an.

Zumaia'ko soziedade batera joan bearra tokatu zitzaigun apaltzera Larrañaga ta bioi. Lagunarteko aparti bat zan. *Txepetxa* soziedadearen izena. Jende jatorra ta bertsozalea juntatu zan.

Baña geitxo kantatu genduan. Ezagun asko degu alderdi artan da danak zerbait agintzen ziguten. Guk, berriz, iñori ezin ukatu.

Egun ontan ere zerbait bildurgarri gertatu zan. Barcelona'ko Banko Zentrala artu zuten gizon-mordo batek, barrengo langille ta enpleatu guziakin; ta gobiernuari eskatu Tejero ta bere lagunak azkar libratzeko, bestela danak il da Bankoa aidatuko zutela.

Gertakizun au, Tejero'k Kongresoa artu zuanetik iru illabetera justu-justu gertatu da. Zer gertatuko ote da emendik iru illabetera?

Nere bertsoetako bat au izan zan:

Bada oraintxe tiro-otsa ta
bada milla nobedade,
okerrenaren bildurrarekin
geienak bizi gerade.

Barcelona'n e gaur goizetikan
komeriak badirade,
Aita Santua geldi liteke
Loiolâ etorri gabe.

Bazan apaltzen nere lagun bat zumaiarra,
Arrio izenarekin ezagutzen deguna. Bertsozalea
da; jatorra bera.

Lagun au, ni klinikan egon nintzanean, lore-
sorta izugarri batekin etorri zitzaidan bixitazte-
ra, ta loreak oi-buruan jarri. Etziran gutxi goza-
tu ango monjak eta neskak.

Ta lengo aparitako bertso bat au izan zan:

Oker aundi bat izan nuan nik
nere bizitzan kaltian,
eta klinikan egondu nintzan
iru bat illabetian.
Lore guziak alperrik dira
sartutakoan lurpian,
Arrio nitzaz akordatu zan
bizirik nengon artian.

Ala, Larrañaga noizbait etxera abiatu zan
da ni bertan gelditu nintzan lotan.

Urrengo eguna, igandea. Lasarte'ren ome-
najea zegoan Orio'n. Banuan joateko gogoia,
baña danak ezin arrapatu.

Goizean pelota-txapelketako azken partidua
zegoan Donosti'n Erretegi II'garrena ta Garzia
Ariño IV'garrenaren artean, da telebistaz bota-
tzen zuten.

Ura ere ikusi genduan. Erretegi'k bigarren aldiz txapela jantzi du, amaika tantorekin bizkaitarra utziaz.

Gero, komunioko bazkari batera eraman ninduten, *Etxe Ona* jatetxera. Euskalerrian jateko etxe on asko egongo da; baña au ere onenen tartean jarri bearko da.

Nere bertsoetako bat au izan zan:

Mundu ontara gu sortu giñan
beste garai umil baten,
zenbat aldakuntz izandu diran
ez da erreza esaten.

Era ontako alaitasunak
komeni dira gizarten,
gu komulgatu giñanen etzan
onelakorik izaten.

Zumaia'ko lagun batzuk etxera ekarri ninduten, da agur beste bat arte.

* * *

Maiatzak 31, igandea, 1981'an.

Egun ortan Zestua'ko Endoia auzoan izan giñan Lazkao-Txiki eta biok. An juntatu zitzai-gun irugarrena: Ziolar, bertako semea.

Auzo au gain zoragarri baten dago, ta emen-txe jaio zan, da urte askotan bizi, Uztapide pamatua.

Orain Zestua'tik dago mendi-pista bat, ta naiko aldapa. Itziar'tik dago kamio ederra.

Baña, auek etziran garaiean, gure Uztapidek ere ibillera xelebren pranko egin bearko zuan.

Gure Euskalerrri ontan oker asko egin da, ta an ere bai. Orain dala urte batzuk, Uztapide basarria bota egin zuten. Ura zan auzoko taberna ta ostatu. Ta obra berri bat asi zuten, da orain eskeletoan dago, porrot eginda.

Uztapide an bizi zan garaiean, ba omen zan pagadi ederrik. Orain piñua besterik ez da ikusten. Aizkolariak ere baziran pesta ortan; baña piñuak ebaki zituzten.

Gauz batek poztu niñun; euskera besterik ez dala entzuten Endoia'ko gallurrean. Alako lekuan poz ematen du bertso kantatzeak.

Goiz arratsaldetan egin giñuzen alegiñak, ta illuntzerako etxera etorri giñan, beste bat arte esanda.

* * *

Garagarrillak 5, ostirala, 1981'an.

Berrobi'ko kamio-baztarrean gizon batzuekin nabillela, kotxe bat gelditu zitzaidan: goazen da goazen. Da derriorrean bezela an sartu niñuten, da nora joango ta Lazkao-Txikiren baserrira.

Naiko jan da edari bazuten, da bero galanta zan. Oso ondo igaro genduan.

Gertakizun au ez nuan jarriko; baña bertso bat dago tarteko ta orregatik nijoa.

Lazkao-Txikik esan zigun, aurreko egun batean Zestua'n izan zala bertsoan, da gai au jarri

omen zioten: bera azi zan seaskari kantatzeko bi bertso. Ta bertso bat au izan omen zan, seaskako bozean, jakiña:

Ni nintzalako ara ta onuntz
ibili oi ziñan *kin-kun*,
aingerutxo bat banintz bezela
gordetzen niñuzun txukun.
Alde batetik amak kantatu,
zuk bestetikan erantzun,
gaur mintzo dedan euskera ere
zuk erakutsi zindazun.

* * *

Garagarrillak 7, igandea, 1981'an.

Mattinen omen-eguna Oiartzun'en. An giñan Euskalerriko bertsolari geienak. Danak kantatu genduan, da azkenean Mattin bera eskerrak ematen bertsoan.

Mattin gizarajoa naiko gaizki ta naiko txuri badago ere, ondo bete zuan bere egitekoa.

Madalensoro frontoi berria gañezka azaldu zan, da jaialdi polita izan zan.

Gastuak ordainduta bildu zan dirua Mattini entregatu zioten, da diru-mordoska polita izango zan.

Izan zan gizon bat, Naparroa'ko Mariezkurrena bera, amar milla duroko eskupekoa eman ziona. Ori da gizatasuna!

Jaialdiaren asieran Juan Mari Lekuona'k itzegin zuan, da nola itzegin ere! Orri esaten

zaio euskera ta orri esaten zaio euskera mendean erabiltzea. Ez, gaur eguneko askori entzuten dioguna ta irakurtzen deguna. Juan Mari Lekuona bezelako batzuk eta bersolariak bizi diran bitartean, iraungo du euskerak.

Ala, jaialdia bukatu zan da alkartasun-bazkaria izan zan. Uste det oso umore onean igaroko zutela.

Lasarte ta biok Idiazabal'era etorri giñan. Prontoi berri baten inaugurazioa zegoan, da emen kantatu giñuzen egunari zetozkion bertsoak, ta oso ondo bukatu genduan eguna.

* * *

Garagarrillak 15, astelena, 1981'an.

Gaur, Eibar'ko lagun baten bidez, sendagille batengana joan naiz, Egin jauna bera. Eibar'ko lagun onek esan zidan, orrenbeste denboran bi makulurekin eta ez nintzala ondo egongo. Ta ala joan giñan.

Esan zidan belaunez bera ondo neukala; baña belaunez gora lan asko zegoala oraindik; burniak atera, anka zuzendu ta bi zentimetro motzago neukana luzatu, etzala lan errex. Baña bera konformatu zan lan ori egitera, ta Donosti'ko klinika batean egingo zidala, berak egitekotan.

Ni Hueso jaun medikuarekin konforme nengoan; baña oraingo ontan dexente txoratuta gelditu nintzan mediku berri onekin. Lagunak ere

orixe esaten zidaten: obe nuala Eginu jaun onekin operatu, ta anka nereea zala.

Da oso ondo jarriko nintzala esaten zidan gañera.

Nere erabakia bear zan da artu nuan: Eginu jaun onekin operatzea.

Baña orain dator komeria: lengo medikuarekin moztu bearra ta zer jarrera jarriko zidan? Ala, urrengo astelenean joan nintzan da adierazi nion nere asmo guzia.

Etzidan gaizki artu, ta nai nuan lekura joateko eskubidea neukala esan zidan gizonki, Eginu'k esandako guzia egiteko asmotan zala baño.

Mesede bat eskatu zidan azkenez: Eginu jaunak operatzean, berak ere an nai zukeala ta esateko Eginu jaunari.

Baietz esanda, oso pozik atera nintzan. Gauz batek arritu niñun: ni Eginu jaunarengana izan nintzala bazekiala. Eskerrak dana zan bezelaxe esan niola.

Lengo esaera zar bat indartu zan berriro: Gezurra esan nun Getari'n, ni baño lenago zan atarin.

Ala, Eginu jaun orrek deitu-zai nago, operatzer joateko. Aurtengo udararen pusik onena ere klinikan pasa bearko det. Gauzak ondo aterra ditezela eta danak aztuko dira.

* * *

Garagarrillak 21, igandea, 1981'an.

Tolosa'ko San Juan pestak asi dira ta zezen-

plazan kantatu genduan Etxeberria'k eta biok. Bazan aizkolari, arrijasotzalle, dantzari ta abar. Jendea ere poliki.

Nere bertsoetako bat au izan zan, gutxi go-
ra-bera:

Pesta-giroa sumatutzen da
oraintxe bazter danetan,
ta gutxiago ez gera izango
gure Tolosa onetan.
Alaitasuna komeni zaigu
beti egon gabe penetan,
alegin danak egin ditzagun
aurtengo San Juanetan.

Plazatik erten giñanean, karrozak zeuden,
oso politak, euskal basarriakin da abar, kalean
ibiltzeko. Baña karroza aien inguruan zebiltzan
antolatzaileak eta abar, etzuten itz bat euskeraz
egiten.

Makiña bat lekutan allegatu gera Euskale-
rrian da askok au esan digute: Tolosa'ko euske-
ra dala ederra. Tolosa'ko euskera ederra izango
da, bai, baña iñork ez badu egiten, edertasunak
galduko ditu. Tolosa'n euskera itzegiten da, bai,
baña Tolosa'ra datozen kanpotarrak.

Gauza bat ikusten det garbi: gazteleraz ondo
dakiten euskaldun geienak erderaz itzegiten du-
tela; ta, ori orrela segitzekotan, obe degu euske-
ra gaxoari il-kanpaiak jo; ta itzegingo degu zer-
bait, il arte.

* * *

Garagarrillak 28, igandea, 1981'an.

San Pedro bezpera. Lasarte'n kantatu genduan Etxeberria eta biok.

Goizeko amabi t'erdietan baziran arrijasotzalle, aizkolari ta ollar-jokoak. Ondo portatu zirala esan bear, Perurena'k berreun kiloko arri zilindroa esku batekin erabili zuan-da.

Baña bertsolarientzat ez da publiko egokia Lasarte'n, lautatik iru kanpotarra izango da seguru asko-eta. Ta alako publikoakin bertso onik kantatuko duan bertsolaririk ez dago. Askok ala uste ez badute ere, publikoak erruz esan nai du bertsolarientzat.

Lasarte'ko lanak eginda, Zarautz'en genduan geren eginbearra, Iñurritza ballaran. An ere bazkal aurretik kantatu genduan. Egualdi ederra ez bazan ere, jende asko zegoan gure zai.

Zarautz alde ori beti izan da euskal erri jatorra. An gustoa ematen du bertsoa kantatzeak. Kilometro gutxi barruan oso publiko diferentek arkitu giñuzen da gaitz erdi.

Ondoren, gazte arteko bazkarian bazkaldu genduan. Bazan bertso ta umore ederrik. Bada-go gazte jatorrik ta argirik Zarautz alde ortan. Zorionak!

Gañera, gazte oiek ballarako zar guztiai bazkari eder bat eman zioten *Euromar* jatetxe ezagunean, da ara joan giñan aien bazkalondoa alaitzera. Gurekin joan ziran bazkaltzen ziran gazte geienak eta soñu-jotzalleak.

Euromar'ko bazkaria oso ona izango zan, baño ango bazkalondok ere balio zuan bi pez-

ta. An etzuan ematen zarrik bazegoanik. Ura dantzatzeko modua! Ura alaitasuna! Urte askotan izan ditezela.

Esaera zarra da larrosarik ez dagoala arantzarik gabe. An ere bazuten beren arantza, ta auxe: zazpi gazte espetxean dituztela. Libratu ditezela azkar ta agur beste bat arte.

* * *

Uztak 2, 1981'an, osteguna.

Santa Isabelak Usurbil'en. An izan nintzan bertako Lertxundi bertsolari gaztearekin. Meza nagusi ondoren kantatu genduan. Egualdi kas-karra ta, ez da arritzeko, jende gutxi.

Beste alde, jendea bertsoakin puska bat aspertuta dago. Etxerik ez da egongo iru edo lau *kaset* beteta ez daudenik. Kotxean, berriz, zer esanik ez. Irrati ta gañontzekoak berdintsu. Janaririk onena ere egunero jaten ari bazera, aspertu egingo zaitu. Olako zerbait pasa da bertsoakin ere.

Aginaga jatetxe pamatura joan giñan bazkaltzera Udaletzeko gizonakin. Naiko langosta genduan, da ez dago geiago esan bearrik zer bazkari egin genduan adierazteko.

Gauza bat gustatu zitzaidan langosta baño geiago. Amabi kontzejal ta alkatea daude Usurbil'en da, bazkaltzeko garaian beintzat, danak ondo konpontzen dirala. Ez da gutxi. Nik ere eskerrak eman nizkion Jaungoikoari, ainbeste bazkari eder egiteko grazia eman zidalako.

Bazkalondoan bertso batzuk kantatu giñuzen da ala agurtu giñan Usurbil'dik.

Baña, bazkaltzera joan aurretik, Irrati Popularrekoak etorri zitzaizkigun da irratirako ere bina bertso kantatu giñun. Nereak onela ziran gutxi gora-bera:

Aspaldi xamar asi nintzan ni
bertsoetako lanean,
eta etxean ez naiz gelditzen
deia etortzen danean.
Gaur Usurbillen kokatu gera
guzizko zorionean,
Santa Isabelak pasa ditzagun
danak umore onean.

Alde batetik Lasarte eta
bestetik berriz Agiña,
Usurbil dago zoragarrizko
terrenoetan egiña.
Nai dan guzitan ez da billatzen
klase ontako jardiña,
obe genduke urte askotan
pozik bilduko bagiña.

Ezin aztu Udarregi bat ere Usurbil'en bizi ta il zala. Egongo da alde ederra orduko Usurbil'dik gaurkora. Denboraren ardatzari jarraitu bear.

* * *

Uztak 3, ostirala, 1981'an.

Tolosa'ko batzokira apaltzera deitu didate ta or pasa degu arratsa.

Tolosa'ko euskaltzalerik pamatuena ta zarrena, gaur bertan bizi dana, Antonio Maria Labaien jauna izango da, dudarik gabe. Zer lan etzuan egingo gizon onek, antzerki-lanetik asituta? Bada, gizon agurgarri oni eskeñi zioten apartan beren omena Tolosa'ko *Jeltzaleak*. Ondo merezitako omena, beraz.

Eun bat lagun bertan giñadela ta apalondo gozoa: soñu, kantu ta bertso. Nik ere alegiñak egin nituan nere aldetik.

Nere galdera bat au da: Labaien jaunak izkuntzaren alde ta erriaren alde egin dituan lanak ta pasa dituan gora-berak, gerra-denborakoak tartean dirala, idatzita jarriko balira, zenbateko liburua izango ote litzake?

Ta, liburu ori irakurri ondoren, gaurko gazteak esango ote luteke lengo zarrak ez dutela ezer egin?

Nere bertsoetako bat gutxi gora bera au izan zan:

Gure lurrari eskeñi ziñan
guziz sasoiko ta gazte,
beste batzuek pamaren billa
urrutira dijoazte.
Euzkadingatik o zenbat kezka,
neke eta buruauste,

ta olakorikan gertatutzerik
igual etzenduan uste,
ai, Tolosa'ko abertzaleak
biotzez maite zaituzte.

* * *

Uztak 19, igandea, 1981'an.

Legazpi'ko Aztiri'n izan giñan. Bertako zaindaria, Santa Marina, larunbatean zan.

Baña ez dute suerte onik egualdiarekin. Ogei urte ta geiago daramazkit aruntza joanez ta sei aldiz etzuan egingo egualdi onik; ta gain zoragarri artarako, berriz, egualdi ona bear.

Legazpi'ko Aztiri esan det, baña Gabiri'ko lurretan dago, Legazpi'tik gertuago badago ere.

Aztiri ortan ez dago gauza aundirik. Baña dozena bat pago motzen erdian, da adar ikusgarrikoak gañera, dago bertako plaza, ta aien itzala zoragarria da. Gauza gutxitzen danean, askoz geiago maitatzen da.

Igarzabal ta biok kantatu genduan. Bazan aizkolari ta arrijasotzalle ta abar.

Pago zar oieri begira, bertso auxe kantatu nien:

Zuen itzalez gozatzen gera
mendi-zale geradenak,
aldakuntz asko ez ote dira
emen gerta diradenak?

Napar aldean dituzute gaur
seniderikan geienak,
lurralde ura Euzkadi dala
sendo aitortzen dutenak.

Agurtzerako, bertso auxe kantatu nuan:

Nere denboran laztan ugari
ainbat paraje eztiri,
aldi batzutan legor antzean,
urrena berriz bustiri.
Urte eder bat opa dizutet
aurrekaldeko guztiri,
gaizki esanak barkatu eta
beste bat arte, Aztiri.

* * *

Uztak 22, asteazkena, 1981'an.

Berri mingotza goizean jaso dedana: Mattin bertsolaria il dala. Bagenekigun gaizki zebillela, ezbear bat gertatuta; baña orren aguro mundua uzterik ez genduan pentsatzen.

Oiartzun'ek izango du poz bat: il aurretik beintzat omenaje eder bat eskeñi ziola. Zeruan gerta dedilla!

Bertso auxe etorri zait gogora:

Gizon alaia gendun gogotik
alairikan iñun bazan,
beti irriparrez, beti umorez,
nola ostatu ta plazan.

Gure arteko txori polita
urte askotan izan zan,
zerura joan da amaituko ez dan
udaberrin esperantzan.

* * *

Uztak 25, larunbata, Santio, 1981'an.

Donosti'ko Egia'n auzoko pestak zirala eta aruntz joan giñan Muñoa bertsolaria ta biok; bi erritar ain zuzen.

Erri-meza genduan goizetik. An kantatu giñuzen bina bertso. Jendea poliki zala esan bear, Egia'n ere ogei ta amarretik bat ez da izango euskalduna ta. Nere bi bertsoak auek izan ziran:

Erri-otoitza bertsoan bidez,
Jauna, nola edo ala,
buru makurka Zugana gatoz,
pekatariak general.
Santiago ta Madalena're
alaxe izan zirala,
pentsatzen degu gurekin ere
errukituko zerala.

Elizarako bidea ere
sumatzen degu autsia,
Jaungoiko gabe konpondu nairik
mundu ontako auzia.
Baña, Jauna, Zu nola zeraden
zeru-lurren nagusia,
itxaropena galtzen badegu
galduta dago guzia.

Ondoren, kale batean zegoan kiosko batera joan giñan kantatzera. Baña ura parregarritza zan. Ogei euskaldun jator etziran izango entzule, ta alakoetan bertsoetan ondo egiten duanak ez dauka meritu gutxi.

Nere bertsoetako bat au izan zan:

«Gora Euzkadi» entzuten degu
oraintxe bazter danetan,
orrelakorik ez da ikusten
eguneroko lanetan.
Oitabost milla bizi omen dira
Egia auzo onetan,
aurrekalde au ikusitzia
penagarri da benetan.

Egun ontan, baita ere, Mattin zanaren illeta arratsaldeko lauretan bere erri Ahetze'n; aurretik jartzen dedan bezela, asteazkenean il baitzan gizarajoa.

Banuan joateko egokiera; baña ez nintzan atrebitu, nagoan bezela. Urruti samar kotxea utzi ta bi makulurekin ibilli bearra tristea baita. Baña illuntzean eman zizkidaten ango berriak an izandako lagun batzuk.

Ni ta beste pare bat kendu ezkerro, beste bertsolari guziak an omen ziran, arritzekoa ez danez.

Jendea poliki omen zan. Emengo aldetik puska bat. Izan ere, Bidasoa'ren arunzko Euskalerra, amaika aldiz esan detanez, erri il bat da. An ez du bizirik ez bertsoak eta ez euskerak,

ori gertatzea mingarri bazaigu ere. An jarri izan diran bertso-saio edo bertsoakin zerbait ikusi duten jaialdi guziak, utsik geldituko ziran emengo jenderik joan ez balitz.

Azkeneko urte-mordo ontan emengo gazte asko ibilli da alderdi artan. Bati entzun nion emengo giroa oiek asi zirala jartzen alderdi artan. Ala izan dedilla.

Beste gauza bat ere gogoratu dit egun onek: Zepai zanari ere Santio egun batean lur eman ziotela. Mattin da biak ez nituan oraintxe ikusi Tolosa'ko prontoian bertsoan. Onuzkero zerruan ere alkar agurtuko zuten.

Beste lagun geiago ere badituzte, neronek artu-eman aundiak izan nituanak: Xalbador, Txapel, Narbarte ta Arozamena. Errexil zanarekin ere jardun nintzan. Urrengo txandan zein ote gera?

Mattin il zaigu, onen aurretik
Errezil eta Xalbador;
Txapel ta Zepai koñado ziran,
biak bertsolari jator;
Arozamena zarra etzan baña
joan bearra derrior,
Goizueta'ko Narbarte ere
tartean izango da or,
mundu ontako azken ordua
uste ez degula badator.

* * *

Uztaillak 31, ostirala, 1981'an.

Gaur San Inazio eguna. Etxe aldetik nabil ta oroipen batzuk datozkit burura, ta paperera pasatzera noa.

Gure aita zanak esaten zuan: gazteak zirala, bere arreba bat, izeba Isabel zana, ta Berrobi'ko beste anai-arreba batzuk, laurak oñez joan zirala Azpeiti'ko Loiola'ra meza nagusia entzutera gaurko egunez. Goizeko laurak aldean erten omen ziran etxetik. Au, gutxi gora-bera, orain dala irurogei urte gertatuko zan.

Geroztik, zenbat mudantza ez da izan emen? Norbaitek esan lezake: Berrobi'tik Loiola'ra oñez joatea ez da ezer. Ori baño aundiagoak egiten dira gaur.

Baña gaur egiten dan ori deporte-espirtuarekin egiten da. Ta orduan sinismenaren espirtuarekin egiten zan.

Deporterako gogo gutxi izango zan orduan, bizi-modu latza zegoan-da. Orduko bizi-modua balego, gaur ere ez giñuzke ikusiko kamio-baztarretan ainbeste korrikalari.

Lengoa nere lagun batek, eguna lanean pasa ta etxera etorri zanean, au esan zidan:

– Bizikleta artu ta buelta bat ematera noa.

Ala erantzun nion:

– Lanean asko nekatu baintzen, ez uen olako gogorik edukiko.

Bizitzaren ardatzak ekartzen diguna artu bear.

Atzo illuntzean izan nintzan mezetan gaur-

ko ordeztu, eta giñan banakak *Inazio* kantatu genduan indartsu. Baña gogorapen auetxek ibilli nituan buruan: Martxa ori jarri zuana gaur begira balego, ez ote lituzke itz asko aldatuko? Edo dana kenduko ote luke?

Nonbait irakurria nago San Inazio Lutero'ren garaian sortu zala, orduko eraso-aldiai gogor egiteko. Gaur ere sortu liteke nonbait. Bestela, akabo gure erlijioa, eliza eta pakea eta izkuntza ere. Obe ni oker banego.

San Inazio, zu sortu zian
Loiola'ko ibarrean,
orduan ere mundu kaskar au
zefon zure bearrean.
Iñoiz bada-ta gure etsaiak
gaur dauzkagu indarrean,
komeni bada oroitu zaitez
Jaungoikoaren aurrean.

Kolokan daude garai batean
indartsu ziran abeak,
ez det esango geok geranik
iñun errurik gabeak.
Ez bazaizkigu onuntz etortzen
ok baño garai obeak,
azken kanpaiak laister dituzte
izkuntzak eta fedeak.

Mendi-gallur danetan
gurutzetxo bana,
ermitak egiten e
egin zuten lana.
Ta oraingo onetan
galduko da dana,
beste santun bat sortzen
ez bada gugana.

Politika erlijio,
danak or nasiak,
etxeke tellatura
arrika asiak.
Etorriko zaizkigu
txik egun gaziak,
laguntzen ez badigu
norbaiten graziak.

Eskola-kontuan e
naiko narrastuak,
errespeto-legeak
dauzkagu aztuak.
Lengo legeak omen
ziraden estuak,
ezagun da nork sartu
dituen eskuak.

Trena ertetzen bada
bere bidetikan,
ez dezagun itxaro
gauza onetikan.
Il eta elbarriak
alde danetikan,
gaur besterik ez dago
Euskalerritikan.

Onenbestez bukatu dezadan San Inazioz asi
dedan istoria.

* * *

Agoztuaren 16, igandea, 1981'an.

Naparroa'ko Aranatz'en giñan Kosme Liza-
so ta biok. Erri onen gorantzak, *Denbora pasa*
liburuan ere egiña nago. Berriz ezin asiko naiz.
Bakarrik auxe: festa jatorra izan zala atzo ere.

Orain nere gogorapen batzuk jarri nai nituz-
ke. Arantza bezelako erriak asko baleude Napa-
rroa'n, ez litzakela gaur dabillen ainbat proble-
ma izango, Euzkadi dala ta ez dala.

Garai batean, Naparro guzian itzegingo zañ
euskeraz. Baña gaur galdua dago ta orain dira
komerriak. Izan ere, izkuntza galdu ezkeru, erri-
rik ez dago, gure arteko abertzale askok ola
pentsatzen ez badute ere.

Baña, danok dakiguna, askori min ematen
badiote ere, Naparro guzian daudela euskeraz-
ko izenak, ta onek esan nai du zerbait. Korella
errian erreka pizti bati *arraixale* deitzen

omen diote gaur ere. Emen, berriz, *Martín pescador*.

Bostetatik lau gure Naparro
daukagu erdaldunduta,
bera Euzkadi ez ote degun
susmua're zabaldua.
Izan ere, erririk ez dago
bere izkuntza galduta,
berriz piztutzen saia gaitezen
alkarregana bilduta.

Garai batean Naparro dana
zorionez zan euskaldun,
izkuntz onetan mintzatuko zan
nola oñezko ta zaldun.
Alde banatara asita or
gelditu gabe alargun,
pamili baten danak bilduta
euskera jaso dezagun.

* * *

Agoztua, 1981'an.

Oraintxe urtebete pasea, Itziar'en bazkari eder baten izan nintzan. Inguru artako pamili baten jaialdia zan; Uranga'tarrak berak.

Bazkaltzeko garaian bezela, agurtzerakoan ere bertso batzuk kantatu nituan. Manetofonoz artu zizkidaten da gero paperera pasa. Auetxek dira:

Alaitasunak gure artean
gaur egin duela gaiñez,
azken agur bat obe ez al da
neurrian eta tamaiñez?
Gu leku ontan gaur bildu gera
Uranga'tarraren zaiñez,
egun guztia daramakigu
egundoko atsegiñez,
berriz e ola bildu gaitezen
oroitu Ama Birjiñez.

Gauza oberik molda al leike
pamili baten alkarren,
ikusirikan gaurko egunez
gorroto ori indarren?
Etsai gaiztoak ainbat jokera
bere olatu zakarren,
zeru txiki bat biurtu degu
gela koskor baten barren,
anaitasuna degu lenengo
dirua dago bigarren.

Garai bateko esaera zan:
«Euskalduna da fededun»,
nik ez dakit gaur aitormen ori
nun egin bearko degun.
Garai artako errespetuak
igesi zaizkigula jun,
ta ala ere zorionikan
ezin billaturik iñun,
modernismo ta aurrerapenak
a zer gauz ekarri digun!

Neri burura etortzen zaizkit
nere izate plakuan,
iñoiz ez gera gu aberatsak
sortu giñaden lekuan.
Baña umore jatortasuna
biltzen geraden txokuan.
Galdu gerade aize txar batzuk
kanpotik eldutakuan,
negar egingo degu alperrik
garaia juandakuan.

Aberastasuna ez da erosten
dozen erdi bat sosean,
ta euskalduna saiatu izan da
etorkizunan pozean.
Gaur gazte asko ez dabiltz noski
guraso zarren klasean,
sinistu gero, gure senidek,
mundu guziko pasean:
katedralikan gaur ez genduan
lanikan egin ezean.

Arraiak ura maitatzen du ta
auntza joaten da larrera,
lana ez al da gu euskaldunon
oraindañoeko karrera?
Gaurko gazteak lan ori bizkor
utzirikan baztarrera,
moda berriak artu dituzte
da joan nai dute aurrera,
Euzkadi aundirik ez da izango
lanan asten ez bagera.

Gure guraso maitagarriak
berdin itxaso mendira,
egunsentian jarritzen ziran
lana non zegon begira.
Aieri esker Euzkadi zarra
alako gradu aundira,
nik nai nukena jatortasun ark
izan dezala segira,
galduko gera moda berriak
aldatutzen ez badira.

Euskalerrian ez da paltatzen
mundu guziko gaitzikan,
etsai askoren amets bakarra
gu ondatzea baizikan.
Gure guraso maitagarriak
aiek etzuten sosikan,
guk ez daukagu petroliorik,
guk ez daukagu gasikan,
lana oparo egin ezean
guretzat ez da pozikan.

* * *

Agoztuak 28, San Agustin, 1981'an, ostirala.

Gure erriko festak. Badago zer jarria, baña danak idazten ezin asiko naiz. Bestela, danak esaten asi ta ezer esan gabe geldituko naiz.

San Agustin goizean, soziedadetik lapurreta egin ziguten: berrogei bat milla duro ta telebisioa. Festak pasatzeko etziran gaizki gelditu.

San Agustin eguna. Meza Nagusia erri-meza izan genduan. Etxeberria'k eta nik kantatu giñuzen bina bertso. Nere bertxoak onela izan ziran:

Jaun Zerutarra, kantari nator
zabaldurikan ezpaiñak,
zure laguntzaz bare ditzagun
etsaiaren zipriztiñak.
Alde batera gaurkotik utzi
kontu arin da zistriñak,
pake ta umorez pasa ditzagun
aurtengo San Agustiñak.

Mundu guziak oraintxe gaiñez
egin du aurrerapenez,
baña garai bateko federik
gure egunetan izan ez.
Pekatariaik gerade danok
aragizkoak geranez,
baña eguna asi nai gendun
Zuri eskerrak eman ez.

Meza Nagusi ondoren, Lazkao-Txiki'k eta Etxeberria'k kantatu zuten. Igandean, berriz, Lasarte eta Agirre'k.

Egun ontan festa polit bat izan zan: Polipaso sei kana erdiko ebakitzen trontzalarien kontra. Trontzalariak, Inazio, berrobotarra, ta Martin, gazteluarra. Auen lana, ogei kana erdiko.

Sasoi oneko baso-mutillak daude ta auek errez irabazi zuten. Ogei kana erdikoren kontua ogei minutu ta segundu batzutan eman zuten.

Polipasok, berriz, ogei ta bost minutu ta segundo batzutan. Baña naikoa egin zuan. Eun da ogei kilo pasea omen du bere pisua, ta berrogei ta amasei urte. Zorionak danai!

Astelenean, zarren eguna izan genduan. Egun ortan, goizean, Donosti'ra etorri bearra izan nuan operatzeko, bertan gelditzeko. Ta baimena eskatu eta ostera etxera joan giñan, da urrengo egunean etortzeko esan ziguten, txintxo ta baraurik. Ta orain emen nago, noiz operatuko nauten zai.

Esan bezela, zarren omenaje ortan, iru bertso bota nituan. Auek ziran:

Oso tristea izandu det gaur
nere etxeko ertera,
lengusu on bat lagun artuta
joan naiz Donosti aldera.
Ostera pozik etorria naiz
jaiotako parajera,
emen ditudan aiton-amonai
musu bana ematera.

Ainbeste jende ara nolatan
amondtu eta aitondtu,
garai batean gazte ziranak,
orrek pena ematen du.
Gu ere bide ortan goaz ta,
bear diegu lagundu,
obe litzake pentsamentu au
maizaxeago bagendu.

Ongi dakigu emen urteak
aurrera dijoazela,
ta zuen artean oso pozikan
emen arkitzen naizela.
Gaur ere emen bildu zerate
joan dan urtetan bezela,
mundutik joan ziranak berriz
zerun gerta ditezela.

Berrobi erri txiki bat izanik, badu festarako
alako adur bat. Jende asko beti ta umore one-
koa, goiz aldera alakoxe oker txiki batzuk iza-
ten badira ere. Arrosarik ez, arantzarik gabe.

* * *

Azaroak 2, astelena, 1981'an.

Len esaten nuan bezela, txintxo etorri nin-
tzan Donosti'ko Erresidentzi ontara, ta emen
nago geroztik. Atzo bi illabete etorri nintzala, ta
ez dakit noiz joango naizen.

Onera etorri eta laugarren egunera operatu
ninduten. Bost ordukoa, alajaña. Operazio or-
tan, anka luzatzeko tresna bat jarri zidaten izta-
rrean, kanpoko alderditik barrura burniak sar-
tuta, ta geroztik emen dabilkit. Au ikusten dute-
nak arritzen dira. Anka iru zentimetro ta erdi
luzatu didate.

Operatu ta laister, Lazkao-Txiki etorri zi-
tzaidan betiko umorearekin. Erakutsi nion tres-
na ori ta ala esan zidan:

– Anka luzatu, e? Au neretzako ona ukek.

Ala esan nion:

– Dauzkaken ankakin ondo abil ta onen inbiririk etzak eduki.

Zorioneko tresna au ill onen ogeiean kenduko didate, beste operazio bat egiñez. Abiso au gaur eman didate. Maiean etzanda jartzearen berri ikasiko det, datorren orrekin seigarren txanda izango det eta.

Garbitokiko animen eguna degu gaur, ta nere oñaze guziak ango miñak arintzeko izan ditezela.

Au da jende askok esaten didana:

– Orain bertsoak jartzeko-eta izango dek naiko denbora.

Ta au erantzuten diet:

– Denbora geiago, gogoia baño.

Neri bertsoa, umorean da ondo nabillenean ateratzen zait. Ez da tristuraren emaitza. Emen, berriz, sarritan tristura nagusi. Ala ere, baditut zirriborro batzuek egiñak, eta, onak edo txarrak, emen dijoazkizute.

Ni onera etorri ta urrengo bi igandetan, Donosti'ko estropada pamatuak izan ziran. Irratiz egon nintzan entzuten, da azkenekoa beintzat zoragarrietan zoragarria izango zan gizonaren begientzako.

Kaiku ta Zumaia batean sartu baitziran, ainbeste bide korritu ta gero, ta denbora askoan Zumaia aurretik ibillita. Askoren iritziz, Zumaia'k eramango zuan bandera, aurreko igan-

deko bentaja iru segundo.besterik ez baitzan
Kaiku'ren alde; baña Kaiku'k egin zuan berea.

Alako arraunketa izan zala jakinda, nola-
alako bertso auek jarri nituan:

Milla pasata bederatzireun
larogei eta bakarren,
Agorrillaren amairuan zan
gure Donosti ederren,
zortzi bat ontzi burrukatuak
ta zein baño zein azkarren,
lenengo Kaiku sartu zan eta
Zumaia berriz bigarren.

Zumaitar auek egin digute
aurten berebizikoa,
jende geienak pentsatzen gendun:
Kaiku lendabizikoa.
Donosti gendun irugarrena,
arraunketa grazikoa,
talde bikaña dauka berekin
eta indar bizikoa.

Castro genduan laugarrengo ta
bostgarren zan Ondarrabi,
iñoiz lenago puntan izana,
beti ortan ezin segi.
Santurtze eta Portugalete
ez dira egondu geldi,
Zierbana zan azkena eta
milla zorion daneri.

Zortzi ontziak ez dute egin,
ez, arraunketa makala,
aitortu bear festari buruz
pozik gelditu gerala.
Kentzerik ez dagoan oker bat
joko guzitan badala:
aurrena bezela azkena ere
norbaitek bear duala.

Bizkaitar oiek indarrez eta
jakinduritik jantzita,
lenengo mallan dabiltz aspaldi
noranaira iritxita.
Zumaitar onak espero zuten
ikurriñaren bisita,
ta ori ere gerta liteke
beste urte baten bizita.

Ainbeste milla persona ortxe
egondu giñan zoratzen,
gure Euzkadi bizi zaigula
sarri giñan gogoratzen.
Gure lurrean ainbat landare
nola ari dan loratzen,
etorkizuna gurea da-ta
saia gaitezen jokutzen.

Erresidentzi ontan jende asko dago gaixoen
serbitzurako. Nola ez? Ia milla bat gaixo egon-
go gera-ta.

Oietako neska euskaldun alai batek bertsoa kantatzeko eskatu zidan, nere gelara etorri zan batean. Ez nuan kantatzeko ausardirik izan; ondoko gelako amon bat ai ta ai zegoan da. Gañera, andik egun gutxi barru il zan. Baña paperean bi bertso aukeratu jarri nituan:

Ez al zaizu iñoiz itzaliko
gaur daukazun irriparrik!
Zerua ere triste egoten da
ez baldin badu izarrik.
Ez det eskatzen urrerik eta
ez det eskatzen zillarrik,
zure biotza eman zaidazu,
ez det besteren bearrik.

Aingerutxoa, emen zabilta
etorri ta joanean,
gaixo daudenak alai jarritzen
eguneroko lanean.
Emen geienak umiltzen gera
gaitza etortzen danean,
nere oñazeak bukatzen dira
ikusten zaitudanean.

* * *

Azaroak 4, asteazkena, 1981'an.

Erresidentzi ontan emen nago, ta sarritan denbora ezin pasarik.

Egun auetako periodiku edo egunkarietan

au irakurtzen det: datorren igandean, Xalbador zanari, bere Urepel errian, egingo zaion omenaldia, ildako urte-mugan. Bost urte omen dira il zala. Denbora nola joaten dan!

Oroitarrri bat ere jarriko omen diote mendi koskor baten gañean.

Bera il zan egunean bezelako aize otzik ez dedilla izan. Bestela, mendi aietan ez da giro izango.

Gogorapen batzuk. Xalbador zein zan jakiteko aiña aldiz ibilli nintzan berarekin. Gizon ixil samarra zan da gai askotan gure moduko bertsolaria. Baña gai batek biotza ikuitzen bazion, jaulkiko zuan lore ederrik.

Egun batez, Gipuzkoa'ko erri baten giñan biok. Gurekin bazan apaiz bertso-zale bat ere. Itz-bide au atera genduan, taberna bateko mai inguruan geundela: gaurko egunean apaizgintza utzi ta ezkontzen diran oiek.

Xalbador ta nik orren kontrako iritziak giñuzen. Apaizak, ordea, aldekoak.

Xalbadorri galdera au egin nion:

— Zuen alde ortan gertatzen al da orrelakorik?

— Ez —erantzun zidan—. An orrelakorik iñoiz bada, alde egingo du urrutietara.

Orain dijoazenak, apaizaren itzak dira:

— Gu orain ogei urte egin giñan apaiz ta orduan *uste* bat zan; da gaur *uste* ori aldatu egin da.

Xenpelarrek bertso batean onela jartzen du:

Animarentzat kaltean datoz
munduko diferentziak.

Gero eta ziurrago nago Xenpelarrek arrazoi
zuala. Orain nere bi bertso:

Azken urtetan sumatu degu
ez dakit zenbat aldakuntz,
nola bizitza ala lantegi,
ibillera eta izkuntz.

Gidari jator zuzen trebe bat
azkar ez badator onuntz,
nundikan nora ez dakigula
laister gerade umezurtz.

Xalbador zana il zala ere
bost urte dira juanak,
piska batean ez degu aztuko
ezagutu genduanak.

Bertso goxo ta eztiak ziran
ark kantatzen zituanak,
gure pozgarri izan ditezen
emen utzi zitun danak.

Xalbador il da andik egun batzutara, Do-
nosti'ko Artzai Onaren elizan elizkizun bat egin
zan bere animaren alde. Bertsolari geienak or
giñan ta aldaretik bertso bana kantatu genduan.

Andik ertendakoan, Uztapideri au esan
nion:

- Manuel, elizkizun ederra.
Ta Uztapideren erantzuna:
– Bai, baña ortarako il egin bear.

* * *

Azaroak 7, ostirala, 1981'an.

Erresidentzi ontan denbora ezin pasarik nabillela, atzo emen gaixo dagoan aiton batengana joan nintzan. Lengo euskaldun zar oietakoa bera.

Bere gazte denborako kontuak esaten jardun zitzaidan. Len ere olako kontu pranko entzun izan degu; baña merezi duala uste det emen jartzea.

Emezortzi urte zituala, morroi joan omen zan auzo-erriko baserri batera. 1928'ko urtea omen zan. Urteko soldata seireun pezta omen zuan, da lana galanki ta esker txarra.

Urte guzian, gosaltzeko, sardin zarraren erdia ta aurreko aldea izaten omen zuan. Gero, katilluren bat esne.

Erriko festetan etxera etorri bear zuala gurasoen etxera eta ez omen zioten utzi nai. Ala, gurasoen etxean lau egun pasa omen zituan; da, berriro joan zanean, etxekoandrea errietan asi omen zitzaion. Da morroiak erropak prestatzeko esan. Orduan ixildu omen ziran errietak.

Izketaldi onek Xenpelarren mutil zarraren bertsoetako bat gogorazten dit:

Ez det gularik janian,
gau da egun beti lanian,
ondo eginda ezker gaiztoa
gero azkenian.

Gure ama zana ere amaika urterekin joan
omen zan neskame Berrobi'ko basarri batera, ta
sortaka gogor egin ere.

Orain krisis dagoala esaten degu. Orduan
zan krisis, orduan; gaurko gazte askok sinisten
ez dutena. Okerragorik ez dedilla etorri.

Garai batean gaztetan zendun
morroi eta neskametza,
berriro ez dedilla etorri
ain bizi-modu nekeza.
Orain ogei bat urte artean
eskolatzeko ametsa,
gaztetan lanen oitu gabeak
gero izaten du pereza,
berriz langille on bat billatzen
ez dago oso erreza.

Eskolatzea ondo da baña
ortan ez bedi alpertu,
gauza onetxek Euskalerrria
gutxi ez digu okertu.
Basarri eta mendi-aldeak
asko ez dira edertu,
kale-aldeko lan-toki asko
ateak ixteko gertu,
jakintsu asko daukagu baño
pakerik ezin agertu.

Azaroak 9, astelena, 1981'an.

Atzo, baita ere, Tolosa'ko zezen-plazan Euskalerriko aizkolarien txapelketa jokatu zan, sei aizkolari onenen artean. Auek ziren aizkolariak: Arria II, Mendizabal, Ugarteburu, Mindegia, Aierbe ta Arrospide.

ez omen zaio urtero jaialdi au egingo, orain artean bezela.

Ala ere, Xalbador ez da puska batean aztuko, bertsolaritzak eta euskal senak arnasik galtzen ez badute beintzat. Orri eusten izango dira komeriak.

Atzo gertatu zala uste ta
pasa bostgarren urtean,
uste ez degula sartzera goaz
udazkeneko atean.
Xalbador zanan sinismenean
irauten saia gaitean,
zeru ederrean kantatutzeko
danok egunen batean.

Atzo, baita ere, Tolosa'ko zezen-plazan Euskalerriko aizkolarien txapelketa jokatu zan, sei aizkolari onenen artean. Auek ziren aizkolariak: Arria II, Mendizabal, Ugarteburu, Mindegia, Aierbe ta Arozpide.

Txapelketa asterako, milla zazpireuni zegoan dirua, Arria aurrena baietz, ta jende geienaren ustea Arria izango zala aurrena. Gero zer gertatuko ta Mindegia aurrena, joan dan urtean

bezelaxe; joan dan urtean ere Arria uste baitzan aurrena. Arria bigarren.

Ta iñork uste etzuana au ere: Ugarteburu irugarren; Mendizabal laugarren; Aierbe bostgarren da Arrospide seigarren.

«Jokoa ez dala errenta» esan zuanak, bapo asmatu zuan. Arria'ri jendeak txistu aundiak jo omen zizkion.

Amaika aldiz gertatu izan da
atzo gertatutakoa,
ara nolatan deskuidatzen dan
gure talentu plakoa.
Xentimor~~kan~~ jokatu gabe
ikusi zuna jokoa,
etxera pozik etorriko zan
pasarik egun bapoa.

* * *

Abenduak 21, astelena, 1981'an.

Santo Tomasen eguna. Gaur etxera etorri naiz Erresidentzitian, iru illabete ta ogei ta bat egun pasa ondoren.

An egon naizen denboran jarri nituan gorabera batzuk, anka nola luzatu zidaten da abar. Esan zidaten azaroaren ogeian berriz operatuko nindutela; baña zortzi egun geroago operatu ninduten: ipur-masalleko ezurretik kendu puska eta iztarrean jarri. Berriz ere beste bost ordu paseko operazioa egin zidaten.

Ondoreneko egunetan ez nuan berriketa aundirik. Danak pasa dira eta orain konforme nago etxe aldetik.

Anka baten gañean nabil bi makulurekin da Donosti'ra egunero joaten naiz *jimnasiara*. Uste det oso ondo jarriko naizela denborarekin.

Beste gauza bat ere esan bearra daukat: jendea nik merezi baño obeto portatu dala. Ura zan borondatea! Puska bateko zorretan gelditu naiz.

* * *

Ilbeltzak 6, errege-eguna, 1982'an.

Donostia'n Erresidentzian nengoala, esan zidaten Ibarra'n Eusebiori omenajea egin bear ziotela. Nere erantzuna: ertetzen banintzan, pozik joango nintzala.

Denbora pasa liburuan esaten dedanez, nik lendabizi ezagututako bertsolari bat da, edo zan, Eusebio.

Santo Tomas bezperan zan omenaje-egun ori, ta ni Santo Tomas illuntzean atera Erresidentzitik. Oso jaialdi polita izan omen zan.

Ta gaur goizean, zer da ta Eusebio ori il daneko berria: Errege-bezpera-arratsaldean il zala. Gaur arratsaldean bere illetak.

Or izan naiz. Bazan jendea pranko. Nola ez? Alako gizon atsegiña baitzan.

Gustora kantatuko nizkion bertso-pare bat edo geiago; baña iñork etzidan ezer esan, eta

agindu ta deitzen ez didaten lekuan sartzea
etzait gustatzen. Baña emen jarriko ditut nere
aleak:

Gaur goizean tristetua nau
izan dan berri mingotzak:
azken taupada eman zuala
Eusebioren biotzak.
Bukatu dira mundu ontako
zure bertso ta itz-otsak,
gaurtik aurrera zure gorputza
estaliko du lur otzak,
bañan badauka alaitasun bat
fededunen eriotzak,
fededunen eriotzak.

Amaika aldiz jardunak giñan
biok euskera gozoan,
gure izketa borobiltzen zan
kantuan edo bertsoan.
Ta orain berriz erori zera
eriotzaren lazoan,
zeru goitara igoko ziñan
aingerun baten besoan,
guretzat ere oroitu zaitez
betikotasun osoan,
betikotasun osoan.

O zenbat aldiz gozatu giñan
biok alkarren onduan,
gure izkuntza, gure oiturak
izaten giñun goguan.

Oraintxe dala amabost egun
omenaldi bat zenduan,
barkatu baña etortzerikan
ez nuan izan orduan,
zure inguruan leku txiki bat
gorde zaidazu zeruan,
gorde zaidazu zeruan.

* * *

Ilbeltzak 18, astelena, 1982'an.

Erresidentzian nintzala eman zidaten berria:
aurten omendu bear zan bertsolaria Mugartegi
zala, ta Ilbeltzaren 17'an; au da, atzo.

Naiko duda banuan garai batean, omenaje
ortara ez ote nintzan joango. Baña nik uste
baño obeto dijoaz gauzak, eta atzoko eguna
Donosti'n pasea degu.

Egun borobilla izan zan. Bertsolari guziak
an giñan: zaar, gazte, erdiko, on, txar ta erdi-
ipurdiko. Entzuleak ere ugari.

Donosti'ko alkate jauna ere pozik zan. Ala
zion: olako egun batzuetan ematen zuala Do-
nosti'k. Euskalerra.

Mugartegi'ren zortzi urteko semetxo bat ere
an ikusi genduan bertsoan, Anoeta'ko fron-
toiaren erdi-erdian, jende guziaren aurrean.
Besteren batek erakutsitako bertsoak izango zi-
tuan; baña arpegia bear da edade ortan, jendea-
ren aurrean kantatzeko. Ni soldaduzka pasa ta
gero ere, lotsatu egiten nintzan-da. Alde ederra
dago.

Lazkao-Txiki'ri ala entzun nion bein: euskaldunak lotsatia bear zuala; ori euskaldunena zala.

Ori, orain arteko euskaldunena izango zan. Emendik aurrerakoena ezin esango degu orrelakorik, ta erriaren onerako izan dedilla.

Anoeta'ko jaialdi ondorenean, *Buenavista* ostatuan genduan bazkaria. Bazan umorea ta alaitasuna. Nai zuten guziak etzuten sartzerik izan.

Alaitasuna ta umorea esan det. Baita errespeto ta gizatasuna ere. Euskalerrriaren puska bat oraindik bizirik dago, Jaungoikoari eskerrak.

Egon liteke kontentu gure lagun Mugartegi. Ango erregali, bertso ta gorantza! Bizi dan artean etzaio aztuko atzoko eguna.

Prontoiko jaialdian Murua gaztea genduan gai-jartzalle. Neri gai au eman zidan:

– Zer moduz zabilta?

Gutxi gora-bera bi bertso auek kantatu nituan:

Ez nuan uste gaur nintzanikan
onuntza etortzeko gai,
naiko lanakin etorria naiz,
ta lotsatua ere bai,
besarkada bat eman nairikan
Mugartegi'ko anaiari;
bertsotarako ez egon arren
oso txukun eta alai,
jai onetara etorri gabe
nik ez nuan gelditu nai.

Okerra egiten denbora gutxi
naikoa izan nuan-da,
orain derrior artu bearko
sendatu arteko txanda.
Laguntzalleak ere baditut
noranaitara joanda,
ondo jarriko naizela berriz
mediku jaunak esanda,
pazientzia artzen det lasai
Jaun Zerukoak emanda.

* * *

Otsailak 8, astelena, 1982'an.

Atzo Naparroa'ko Aranatz'en izan giñan. Joan dan udaran, Pantaleon bertako trontzalari pamatuari etxea erre zitzaion. Ango naigabeak piska bat arintzeko, atzo, igandea, jaialdi polit bat izan zan, eguardian asita. Gañera, ain zuzen, iñauteriak egokitu ziran.

Lenengo, pelota-partidua. Ondoren, trontzalariak. Eta gero, Mitxelena, Lazkao-Txiki, Etxeberria, Lizaso Kosme, Lazkano ta Garmendia bertsolariak, Jose Maria Aranalde gajartzalle zala.

Pesta polita erten zala esan bear. Baña ango pesta-jartzallerik onena egualdia izan zan. Etzi-rudian otsailla zanik. Ta Aranatz'erako uraxe bear. An ez baitago pronto itxirik eta abar.

Orregatik, nere asierako bertsoa gutxi gorabera au izan zan:

Gipuzkoa'tik Napar aldera
gaur egin degu balantza,
sasoi onetan izaten dana
egualdiaren zalantza.
Otsaillean gaudelarikan
daduka agoztu-antza,
asierako besarkada bat
eskeintzen dizut, Arantza.

An Aranatz'i Arantza deitzen diote.

Ondoren, lagun arteko bazkaria izan zan so-
ziedade batean, dana bazkaldarrez beteta. Ba-
zan umore ederrik bazkal ondoan.

Ta illuntze aldera, «Beste bat arte» esanda,
agur egin genion Arantza'ri.

* * *

Otsailak 13, larunbata, 1982'an.

Gaur gure etxean txerria il degu eta oroipen
batzuk datozkit, eta oietxek paperean jartzera
noa.

Esaera zaar batek dio: Txerria ildako astea
eta ezkonduako urtea, onenak.

Txerria ildako astea, onena. Ori garai ba-
tean izango zan. Gaurko gazteak txerrikiari mu-
zin egiten diote. Ezkontzarena, berriz, ez dakit.

Nik lendabizi edo aurrenekoetan ikasitako
bertsoak Bizkai'ko txerriarenak dira, gure aita
zanak perian erositako paper batetik.

Gure aita zanak bazekizkian ordurako ber-
tso oiek, eta oso gogozko zitzaizkion. Izan ere,

ain da gertakizun parregarria. Onela da lenengo bertsoa:

Notizi bat nigana
dago etorria,
esplikatuko banu
txit parregarria.
Bizkaia'n egin dute
prueba berria:
kutxillorikan gabe
iltzea txerria;
erakutsi diote
istillu gorria.

Ta gure etxean aurten, Bizkaia'n bezelaxen, prueba berri bat egin degu: «kutxillorikan gabe iltzea txerria», ta alaxen il ere. Eletrika-indarrezko tresna batekin lepoan ikuitu eta seko txerria. Ez dago eustalle bearrik ere. Aurrerapenaren kontuak.

Bizkai'ko txerri arek suerte ohea izan zuan, gureak baño. Onela dio bertso batean:

Bi familiak zuten
nolabait azia,
erdibana jateko
kendu nai bizia,
beintzat eskapatzeko
izan du grazia.

Bi famili aiek bai, izango zuten aste guziko pesta, «prueba berriak» ez balie utsegin. Beti-koa: gauzak bapo aldatu zaizkigu.

Garai batean txerri iltzea
pesta izaten genduan,
etxe ta auzo bilduko giñan
danak alkarren onduan.
Gaur ez da janik estimatutzen
garai artako moduan,
orain krisisa dagola baño
nik ez dakit nun dagan.

Maikada jende gibela jaten
artuz ainbeste atsegin,
emakumeak antolaketan
izaten zuten zer egin:
Odolki eta ainbeste puska,
txorizotarako berdin,
urte guziko gozagarririk
eltzean palta etzedin.

Gero odolkiak partitutzea,
ura izaten zan poza,
naiz-ta oparo egonagatik
elurra eta izotza.
Ume bat ortan baño geiago
beste ezertan ezin goza,
illuntzerako propinarekin
bapo betetzen zan poltsa.

* * *

Otsailak 21, igandea, 1982'an. Iñauteriak.

Gaur Karnabal-igandea. Amaika zorakeri ta xeibrekerizko egunak.

Orain, demokrazi-arrasto onekin, leku askotan egiten dira inauteriak; baña orain arte Tolosa'n bakarrik gure Gipuzkoa'n.

Garai batean, etzan izango apaiz eta prailerik inauterien kontra sermoirik egin gabekorik.

Gure erriko Don Rikardo zanak inauteri urrengo igandeko sermoia jakiña izaten zuan.

Belauntza'ko Don Eduardo zanak, berriz, astelenez ta asteartez arratsaldean *bezperak* jartzen zituan —igandean zer esanik ez dago—, bertako neska edo *Maria-alabak* Tolosa'ra joan gabe geldi zitezten. Mutillak etzioten kasorik egingo.

Gaur Tolosa'n eunka ta eunka gazte ibilliko dira, *bezperak* eta *Maria-alabak* zer diran ez dakitenak.

Tolosa'ko Don Benzeslao Maiora zanak, berriz, alegin aundiak egin omen zituan inauteriak galerazteko.

Gure Berrobi ontan, negu guzian eguardiko amabietan daukagu meza nagusia; ta gaur, bertako lanak egiten dituan praileak, amaiketara aurreratu du, jendea Tolosa'ra joan dedin. Don Rikardo zana begira balego!

Apaiz ta praile, zar eta gazte,
danok aldatu gerade,
garai bateko gauz serioak
gaur txorakeri dirade!

Urte gutxian ainbat aldakuntz
emen ikusita gaude,
danon Jabea bakar-bakarrik
daukagu aldatu gabe.

Garai batean inpernua zan
sermoia edo itzaldiz,
eta oraingo sermoi auetan
aitatu ere ez berriz.
Itzalita egongo ote dan
sarritan esanez gabiltz,
lasaitasun bat bagenduke guk
gauz ori orrela balitz.

* * *

Otsailak 24, asteazkena, 1982'an. Auster-eguna.

Gure aita zanak, arek ere bere aita zanari entzunda, askotan esan oi zuan berrogei eguneko elurtea auster-egunean asi zuala. Beste Berrobi'ko zaar askori ere orixe entzun diet.

Auster-goizean autsa artuta eleizatik ertetzeraoan, elur txe-txea etenik gabe omen zan, da baserritar batek au esan zuan:

— Elurre aundie egiteko, anka meetxoa dik onek.

Ta ezagutu dan aundiena, alajañetan.

Txirrita zanak ere badu berrogei eguneko elurteatzaz bertso bat. Onela da:

Milla zortzireunean
izan zan kortea,
emen gertatu zana
negu fuertea.
Orma beltzak egiñaz
luzaro nortea,
berrogei egunean
gero elurtea,
ijitoak amona
jandako urtea.

Txirritak ez digu esaten zein illetan zan, da Berrobi'ko aitonai ere ez diet sekula entzun zein urtetan zan. Baña Berrobi'ko zaarrak esaten duten elurtea ta Txirritak esaten duana, ez dira bat izango, nere ustez.

Milla zortzireun baño onuntzago izango zan Berrobi'n aitatzen dan elurtea. Noiz zan orduan? Edo bat al zan? Nere galdera or gelditzen da aidean, iñork nai badu erantzun.

Eta aurtengo neguarengatik zer esan? Orain artekoa beintzat ezin esango degu negua danik. Ta aurrera ere ez dago itxura aundirik, berrogei eguneko elurtea izateko. Artzai ta nekazariak ez dira asarre izango.

Baña ba omen du bere alde txarra negu on onek ere. Danok dakigun bezela, Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko baso geienak *insignis* piñuarekin jantzita daude, ta aurten piñu oietan poltsa zuri edo zomorro zikin bat erruz azaldu da, kalte izugarriak egiñez; ta ori, negu ona izan dalako gertatu omen da. Betikoa: arrosarik ez arantzarik gabe.

Garai batean elurra sendo
egiten zuan neguan,
nik nola esan mutil koskorrak
zenbat gozaten genduan?
Zozoak eta birigarroak
makaltzen ziran orduan,
makiñatxo bat deskuidatu zan
sagar zarraren onduan.

Iru-lau lagun bilduko giñan
pozik alkarren ondora,
talo ta esnea naikoa janda
jakian billa kanpora.
Jende askorentzat elurtea
gauz tristea izango da,
Paradisoan bezin kontentu
pasatzen gendun denbora.

Eskupeta zar bat bagenduan,
etzan paltako zeporik,
bisitatu gabe ez genduan
utziko mendi-zokorik.
Egia esan, gaur ez dadukat
elurretako gogorik;
gu jolasteko, orduan etzan
elurra bezelakorik.

* * *

Martxoak 10, asteazkena, 1981'an.

Gaur ere letra batzuk egin gabe ezin naiz egon. Oraindik orain gure Aita Santu Juan Paulo II'garrenak, bere ibillaldiren batean, au esan omen du: Munduko oker ta kalte geienak ezjakintasunetik eta eskolik-ezatic datozela.

Nik ez det esaten Aita Santuak arrazoi osoa ez duanik. Baña begira dezagun gure Euzkadi ontara batez ere.

Bada, ba, oraintxe emen eskola ta ikasi bearra. Eunka ta eunka gazte ikusten dira besarteak liburuz beteta. Ortik kanpo, telebista ta irrati guziak erakusteko prest. Ta izan al da, gure lur ontan, gaur aiña bidegabekeri? Emengo gizon il bearra, emengo lapurreta, emengo konpiantzic-eza...

Eranegun bertan, Gazteiz'en *La Virgen Blanca* deritzaion Ama Birjiñaren irudi zoragarria bota ta puskatu omen dute.

Bizkai'ko erri batean, berriz, neska gazte bat ilda billatu omen dute, gasolina-poto bat ondoan duala.

Donostia'n, berriz, iñauterietan, zutik ibiltzeko gauza ez dan neska gaixo bati, bere joan-etorrirako zeukan gurdia ostu eta Urumea ibaira bota omen zioten.

Zer ikusteko ote gaude? Munduko zenbait erritan bezela eskolik gabe eta atzeratuak ba-geunde, zer ikusi bear ote genduke?

Garai batean gu onak giñan
mundu guzian aurrean,

denborale bat indartu zaigu
dana irentsi bearrean.
Ta ekaitz onek jarraitzean badu
euskaldunaren lurrean,
len giñun pamak galdutzeko're
ez gaude leku txarrean.

* * *

Martxoak 13, larunbat, 1982'an:

Gaur kinto-bazkari bat izan degu Agiña'n.
Ogei ta amabi bat lagun bildu gera, ta egun eder
bat igaro ere.

Ildako lagunena alde meza lenengo, Agiña'ko
elizan. Eskeintzako garaiean, gutxi gora-bera bi
bertso auek kantatu nituan:

Mundu onetan badira ordu
tristeak eta illunak,
bañan tarteka etortzen dira
goxoak eta txukunak.
Pena da baña lagun batzuak
dauzkagu mundutik junak,
ta aiek ere maite zituzten
gaur bezelako egunak,
zeru erdian gertatu bitez
palta zaizkigun lagunak,
palta zaizkigun lagunak.

Atsegingarri ez al da, jaunak,
guk dadukagun oitura?

Maitasunean asko ez dabilta
gaur gu gabiltzan modura.
Uste gabean iristen gera
munduko azken ordura,
palta zaizkigun lagun aientzat
izan dezagun ardura,
garbitokian baldin badaude
joan ditezela zerura,
joan ditezela zerura.

* * *

Martxoak 23, asteartea, 1982'an.

Ain pelota-zalea izanik, atzo, astelena, Tolosa'ko *Beotibar* frontoian izan nintzan partidua ikusten. Bigarrena ta irugarrena ikusi nituan.

Bigarrenean, Pierola ta Luke, Retegi III ta Maiz II'aren aurka. Azkeneko auek errex irabazi zuten: 22 ta 7.

Urrengoa, Lazkano ta Txoperena, Maiz I ta Bizenteren aurka. Joko gogorra ta ikuskizun polita izan zan, Lazkano ta Txoperena'k irabaziz.

Ni arritu ninduana, ordea, gizon baten diru jokatzeko modua izan zan, nere silletik lau bat sillera zegoan-da.

Txartel-pil aundia jokatu ta galdu zuan bigarren partiduan. Irugarren partidurako, berriz, nere ondoan exeri zan. Partidua asi ta bereala, milloi erdi bateko txartela egin zion korredoreak, berak ala eskatu ziolako. Aurrera ere ko-

lore berdiñean jarraitu zuan jokatzen, azkenean danak galtzeko.

Korredoreak jakingo zuan zein zan. Bestela etzion emango.

Uste det neri ainbat alare geldituko zitzaiola. Nere buruari ala nion:

— Au dek itxumena, au!

Ta orain dator polita. Gaur, Arantzazu'ko egutegiaren orria kendu ta ara zer dakarren atzeko aldean:

«*Gizonen artean*: Gizadia bat izanik, gizon batzuk besteen berri gutxi dakigu. Eta gure burutik pasa ere ez da egiten, oraindik gure herrietan, Donostian, Bilbon..., jentea jatekorik gabe eta lanik gabe dagoela pentsatzea. Urrutiko kontutzat dauzkagu holakoak. Gure artean ere baditugu holakoak, eta zein gutxi ezagutzen ditugun!»

Mundu onetan bizi gerade
beltz, gorri, ori ta zuri,
ta pentsatzeko gertakizunak
tokatzen zaizkigu guri.
Batzuk milloiak jolaserako
ta bizi dirade guri,
ta beste askok ogia palta
negar-malkoak ixuri,
danak senide gerala baña
sarri gezurra diruri.

Gizon guziak bizi gerade
zorionaren eskean,

suerte ori oso gutxintzat
gaur dago nere ustean.
Alde aundiak ikusten dira
zârrean eta gaztean,
baña badaukat itxaropena,
mundu kaskar au uztean,
emen ez degun berdintasuna
izango dala bestean.

* * *

Apirillak 5, astelena, 1982'an.

Atzo, igandea, Berastegi'n giñan Kosme Lizaso ta biok. Bertako erretore Don Tomas omentzen zuten *Basurde* Alkartean.

Bazkari ta bazkalondo goxoa ta alaia izan zan. Erregali polit bat ere eman zion lendakariak.

Soziedade-mallan egin zitzaiona, erri-mallan merezi zuan apaiz jatorrak. Beste batean ala izan dedilla.

Nere bertsoetako bat au izan zan:

Esan ziraten gure Don Tomas
bear gendula omendu,
emen apaiza maite dezute,
onek poza ematen du.
Al baldin bada gorputz-animak
bear ditugu mantendu,
obe litzake sinismen ortan
luze iraungo bagendu.

Berastegi'n bertsotan poz ematen du. Ura zaletasuna ta ixiltasuna! Len ere prankotan izanda nago, ta ez det uste bertsolaririk gabe pestarik egiten dutenik.

Bestetik, berriz, erri bikaña da. Jaietan-da, aruntzako joera aundia dauka jendeak. Ostatu ta tabernaz ere ondo osatua dago.

«San Lontzok arte!» esanda agurtu genituan berastegitarrak. Zorionak!

* * *

Apirillak 9, Ostiral Santu, 1982'an.

Urtero bezela deitu zidaten Tolosa'tik, Izazkun'era egiten dan gurutz-bidean parte artzeko. Oso gustora egiten det lan ori. Urte askotan joan nadin lagun dezaidala Izazkun'go Amak.

Zazpigarren gertakaria utzi zuten nere gain. Gutxi gora-bera, onela kantatu nuan:

Gurutze astunakin
Jesus dijoala,
zutik joan eziñik
lurreratu dala.
Berriz altxa nai luke
nola edo ala,
guk ere egin dezagun
geren egiñala.

Lurrera erorita
gaurkoz zein ez dago?
Euskalerria ere,
oker ez banago.
Arrokeri puska bat
bagendun lenago,
gaur atsekabetikan
daukagu geiago.

Eliza bera ere
dabil balantzaka,
nunai bazterra joaz
kinki eta kanka.
Gazteri geientsunak
egin dio anka,
Jauna, erruki zaitez,
pekatuak barka.

Iritxi nai genduke
guk zorionera,
bañan Jesus utzirik
alderdi batera.
Lurrean arrastaka
ibilliko gera,
gurutz astunarekin
asten ez bagera.

Ala, Izazkun'go gañera allegatu giñan. Jen-
de asko, egualdia ere alakoxea zegoan-da. Da-

nak ez dira Benidorm edo Sevilla'ra joan. Ta joan diranak, ondo etorri ditezela.

Bukaerako, bertso au kantatu nuan:

Ostiral Santuz gure bisita
gaur Izazkun'go Amari,
gurutz-bidean lagundurikan
bere Seme maiteari.
Gure munduko bizitzan ere
badegu gurutz ugari,
gaurko egunez il zitzaiguna
artu dezagun gidari,
urte eder bat igaro eta
millaka esker danari.

Gurutz-bidea asi aurretik, India'n urte askoan misiolari dagoan tolosar batekin egondu nintzan.

Euskalerra oni aldaketa asko billatu al dizkion galdetu nion.

Orain zazpi urte etorri omen zan len. Orduan bai arritu zala esan zidan. Lengille guziak kotxekin da abar.

Emengo berriak ere jakiten dituztela zion. Emen bertan ikusten dan baño okerrago jartzen zituztela gauzak. Bideetako polizi ta guardia zibil eta gizon iltzeakin zegoan arrituta.

Lurralde aietan oso jende ona zala zion. Gu bakarrik ote gaude ba gaixtoak? Egitazko Pazko bat etorri dedilla Euzkadirentzat ere.

* * *

Apirillak 11, Pazko-igandea, 1982'an.

Aberri-eguna danez, joan dan urteko gisan, Tolosa'ko Batzokian izan gera bazkaltzen Lizartza'ko Kasiano ta biok.

Ez giñan jende geiegi. Izan ere, oraingo jendearen ibilli bearrarekin, badirudi erri-pesta guziak moteltzen dijoaztela. Gure ondoan zan euskaldun jator batek au zion:

– Gaur Pazko-eguna ta Santa Mariko meza nagusia parragarria zan. Oso jende gutxi.

Ala, bazkalondoan egin giñuzen egunari tokatzen zitzaizkion bi saio.

Trikitixa ere bazan: Albiztur'ko bi anai, bategen amabost urte ta besteak amaika.

Bertsolaririk eta soñu-jotzallerik ez da paltako oraingo itxurez. Nork dantzatua ta nork entzuna izan dedilla.

Ta orain betikora nator: Tolosa'ko kaleetan erdera nagusi izateak oraintxe ez gaitu arritzen. Baña Tolosa'ko Batzokian, neri min ematen dit eta bertsoetako gogoak kendu. Euskeraz jakin da kastellanoz itzegin bearrak, oraindik geiago.

Tolosarrak agurtu eta etxera abiatu giñan.

Berrobi baño lentxeago dago *Gure Txokoa* dantza-leku famatua. An etzegoan jende ta koxte-paltarik. Zer da, ordea, au? Olako ixtimazioa balute euskerak eta elizak, oraindik ere esango genduke: Euskaldun, fededun. Itxaropenik ez dezagun galdu.

* * *

Apirillak 13, asteartea, 1982'an.

Atzo, Pazko-bigarrena, Ondarrabi'ko Guadalupe'n izan giñan Etxeberria ta biok. Gain zoragarri artan jende asko bildu zan, egualdi otz samarra bazegoan ere. Izan ere, mendi aldeko Ama Birjin ermitak adur aproposa dute erronietarako.

Garai batean gerra-leku egokia zana, gaur pake-leku zoragarri biurtu zaigu. Ez da gutxi gure egunetan.

Inguruko Jaizkibel mendiak tristura puska bat eman zidan. Badirudi suaren mende bizi dala. Oraindik orain ere, sail galantak erreta daude. Segurantz ziur ez da, nor asiko da landare sartzen?

Konfiantza bear degu kalean, mendian da nunai. Bestela, gure erri onek egin du.

Ala, egun ederra pasata etxeratu giñan.

Sua kalean, sua mendian,
sua indartu nunari,
emen kiskaltzen ez dana pozik
asi liteke kantari.

Konfiantzarik galdu gabetan
ekin deiogun lanari,
oitura zarrên erregutuaz
Guadalupe'ko Amari.

* * *

Apirillak 19, astelena, 1982'an.

Atzo, igandea, egun aundia jokozaleentzat.

Santo Domingo'n, Maiz II ta Galartza III eskuz-esku txapelketako partiduan. Galartza irabaztun: 22 - 12.

Eibar'en, berriz, Gorostiza ta Tolosa, azkenengo au nagusi erten: 22 - 9.

Eguardi berean, Tolosa'n, *Pentatlon* txapelketa lau indartsuren artean: Arria II, Goenatxo, Arregi ta Nafarrete'ko Ezkerra, nagusitasun izugarriarekin Arriak aurrena egiñez.

Lana ta aurrenekoaren denborak: eun kiloko arri biribilla ogei aldiz altxa: 3,26; lareun kiloko arriarekin bi plaza: 8,24; sei kana erdiko ebaki: 16,43; bi txinga 50'na kilokoakin lau plaza: 1,59; iru kilometro korrika: 15,03. Lan guziak bukatu: 45,35.

Arratsaldean, berriz, leku berean, Mendizabal II bi kanako zutik ebakitzen, marka jarri asmoz. Bai jarri ere, 34,22'an lanak bukatuz.

Jaialdi ontan, Etxeberria ta ni or giñan jendearen alaigarri, jende askorik ez bazan ere. Lenengo bertsoa onela kantatu nuan:

Bertso-saioak asi oi dira
arratsaldeon emanaz,
gaur ere ala izan dedilla
Mendizabal'en omenez.
Jende askorik ez da etorri
aurrez pentsatzen gendunez,
baña saio bat egingo degu
borondaterik onenez.

Egun ortan bazan beste gizon-proba bat Eibar'ko Arrate'n.

Ta zer esango degu orain fubolatzaz? Erreal-
la ta Osasuna jokatzan ziran Iruña'n, ligako az-
ken aurreko partiduan. Milla ta lareun peztako
sarrerak amar milla peztan salduak omen ziran,
bigarren eskuzkoren batzuk, jakiña. Krisisa da-
goala? Askotan ezin sinistu.

Gu euskaldunak beti izan degu
jokatutzeko afana,
baloi, pelota, aizkora, arri,
emen badaukagu dana.
Diru-puska bat baldin bagendu
ta iñoiz bezela lana,
dibertsiorik maite duenak
badauka nora joana.

* * *

Apirillak 26, astelena, 1982'an.

Atzo egun aundia gipuzkoarrentzat. Atzo-
koarekin, bi urtetan segidan ligako txapeldun
Erreal.

Meritu izugarriak edukiko dituzte gure mu-
tillak. Ortan ez dago dudarik. Baña bai jendeak
erantzun da omendu ere. Zenbat botill txanpain
ustu ote zan atzo? Bazirudian Gipuzkoa dana
zeru biurtu zala. Ura jendearen zoramena!

Gure arteko gorroto ta petralkeriak baretze-
ko izan dedilla donostiarren garaipen ori.

Begiak argi dituzte eta
bizkor gerri ta iztarrak,

ajolikan ez zikindu arren
zankoak eta bizkarrak.
Gau eta egun dizdiz egiñaz
jarri zaizkigun izarrak,
milla zorion danari eta
aurrera donostiarrak!

* * *

Apirillak 27, asteartea, 1982'an.

Gaur, Bizkai'ko *Deia* egunkarian, berri au irakurri det:

Santiago de Chile'ko *El Mercurio* egunkariak txapelketa gisako bat egin omen du, gazte-lerazko amar itz ederrenak jakiteko, ta itz auek aukeratu omen dituzte. Euskeraz ere ederrak dira ta ala jarriko ditut:

Askatasuna, Ama, Pakea, Itxaropena, Amorioa, Itxasoa, Urdiña, Jaungoikoa, Edertasuna ta Adiskidetasuna.

Ta danai bertso bana jarri bear diet:

Askatasuna:

Zeruko Jaunak eman zigun-da
gauzik onena daukagu,
ondo pentsatzen jarri ezker
ain xelebreak gera gu.
Oraindik garai izan liteke,
geroxeago berandu,
askatasuna alkar iltzeko
artutzen baldin badegu.

Ama:

Ama itz ori degu benetan
aoa betetzen diguna,
beste iñortxok ezin du egin
amatxok egin ziguna.
Nik ere banun nerea eta
gaur dago mundutik juna,
berriz e noizbait etorriko al da
alkartutzeko eguna!

Pakea:

Pake itza ere ugari dabil
gaur gizonaren aotan,
bañan sinistu etsaiak ere
ez dabilzkigula lotan.
Berriz pakerik izango al da
gure mundu koxkor ontan?
Aurrerapenak zertako dira
onela bizitzekotan?

Itxaropena:

Euzkadi ere gaurkoz bezela
dago naiko itxusia,
kezkati dago maizterra eta
kezkati da nagusia.
Gogor samarra izanagatik
gure arteko auzia,
itxaropena galtzen danean
galduta dago guzia.

Amorioa:

Itz eder au're modan dago gaur
munduan zorionean,
negurtu ezin liteken gauza
bere lekun dagonean.
Mingaiña ixilik egon liteke
baña biotza lanean,
amorioak ez du berdiñik
egiazkoa danean.

Itxasoa:

Izan liteke traketsa eta
izan liteke txukuna,
asarretzean ainbat naigabe
sarri ematen dituna,
bañan jateko arrai goxoak
or ematen dizkiguna.
Itxasoa da Jaunan obra bat
maitatu bear deguna.

Urdiña:

Gure onerako Jaun Zerukoak
ainbeste gauza egin du,
gizon-begiak lilluratzeko
zerua ere urdindu.
Bera irixteko bete bearrak
dauzkagu amar agindu,
goi ortan dagon edertasuna
ezin liteke berdindu.

Jaungoikoa:

Asierarik ez duena da,
bukaera're berdiña,
naiago nuke bear bezela
gogoratuko bagiña.
Beren saria zintzo-gaiztoai
ondo ematen dakiña,
zeru ta lurren Jabea eta
gugatik gizon egiña.

Edertasuna:

Gauza oberik ez da izango
gizona zoratutzeko,
udaberria etortzen zaigu
bazterrak loratutzeko.
Nai duenari consejutxo bat:
geiegi ez arrotzeko,
gauza pitiña naikoa baita
edertasuna galtzeko.

Adiskidetasuna:

Besteren bear gerade sarri
lur ontan gabiltzanean,
Jesusek erakutsi ziguna
gurutzean il zanean.
Jaungoikoakin da gizonakin
adiskidetasunean,
kezkarik gabe joan gaitezen
mundutik goazenean.

Maiatzak 7, ostirala, 1982'an.

Gazteiz aldera joan bearrean gertatu gera lagun bat eta biok. Alderdi ura asko aunditu da azken urte auetan. Zerbaitegatik euskal gobernu-a ere bertan daukagu.

Gauza batek tristetu ninduan. Orain dala egun batzuk periodiko batek ala zion: Beste amar egun barru Gazteiz'en euririk ez badu egi-ten, kosetxa guzia galduko dala.

Ango gari-soroak oso arlote daude. Landa-rea jaio ta bere artantxe leku askotan.

— Txikia banaiz, aundia banaiz, maiatzean burutuko naiz —esan omen zuan gariak. Nik ez dakit zer pasako dan alderdi aietan; baña ez dute burua oso goian izango.

Ainbat aurrerapen daukagun garai ontan, gezurra dirudi gizona ain miserable gelditzea, egualdia dala ta ez dala.

Gazteiz'en dadukagu
geren zoramena,
euskal agintaritza
bertan dagoena;
gari-soroak eman
ziratela pena,
gauza galestitzeko
martxarik onena.

Gazteiz or dadukagu
bapo aundituta,
kale aldetik jendez
ezin kabitua.
Gari-sallakin nago
oso kupituta,
jan bear onek emen
komerik ditu-ta.

* * *

Maiatzak 9, igandea, 1982'an.

Gaurko *Deia* bizkaitar periodikoak berri
auk zekarzkian:

Minutu bakoitzeko milloi bat dolar gasta-
tzen omen da munduan armagintzan. Peztatara
biurtuta, eun milloitik gora.

Iru milla milloi lagun omen daude, esateko,
bear bezelako urik ez dutela; zortzireun milloi
ezjakin edo analfabeto; berreun ta berrogei ta
amar milloi ume eskolarik gabe.

Lepo gañean burua degun guztioi eman bear
liguke zer pentsatu ederra.

Ta au da xelebrea: arma egintzallerik aun-
dienak dituztela pake-itzik sonatuenak.

Ta iñon pakerik ez ikusten. Zenbat azpijan
eta maltzurkeri, eder-begira ibiltzeko? Olako-
xeak izan nunbait mundutarrak.

Ezin esan alako milloiak
gastatuaz armagintzan,

nunbait gizona okerbidetik
egun batean jarri zan.
Geiago ez dago pake santurik
gure munduko bizitzan,
sarri obe da ez gogoratu
zer arriskutan gabiltzan.

* * *

Maiatzak 10, astelena, 1982'an.

Atzo, senide arteko bazkari batera, Orendain' era deitu zidaten, da bai pozik joan ere. Bazkalondo umoretsua ta alai ia igaro genduan. Egunari zegozkion bertso batzuek kantatu nituan nik ere, ta aurrera.

Ala zioten beren artean:

– Ainbeste neke egin geren bizitzan, da entierrotan bakarrik bildu bear al degu, ba?

Arritzekoa ez danez, baziran amar-amabi seme-alaba azitako gurasoak. Omenaje-garaie-tan bizi gera, ta ain senar-emazte jatorrak uste det zerbait merezi dutela.

Etxe aldera abiatzeko kanpora erten giñanean, aize otza zegoan gogotik. Neguko partez izango zan.

Garai bateko guraso zarrak
ziran zugaitz emankorrak,
zorigaitzean oitura aiek
etziraden iraunkorrak.

Sarri bildurtutzen nau
ikusirik martxa au,
merezitako zigorrak,
betiko antzutu bazaizkigu
gure basarri jatorrak.

Orendain'go gain zoragarriak
etzun ematen Maiatzik,
egualdiak e aldatu dira,
ortan ez dago zalantzik:
mendi, kale, basarri,
pentsatu izan det sarri,
ibillera eta jantzik;
guk bizi degun Euskalerrriak
ez du lengoaren antzik.

* * *

Maiatzak 13, osteguna, 1982'an.

Entzuteko guziak ez genituan entzun. Atzo
zan, ain justu, urte bete, gure Aita Santu aundia
Erroma'ko San Pedro plazan gazte batek tiroz il
nai izan zuala. Naiko larri aldegin zion eriotza-
ri.

Ta orain, Lisboa'ko Fatima'ra etorri da-
nean, atzo, gaueko ordu batean, Españi'ko gaz-
te batek bizia kendu nai izan zion puñalaz. Es-
kerrik bost bat metrora gelditu zutela zaintza-
lleak.

Ta nor dala uste dezute gazte ori? Orain urte
gutxi Aita Santuaren kontra altxa zan obispo

Lefebre'k ordenatutako apaiz bat. Danak erotu
gerala ematen du oraintxe. Zer ikusteko edo en-
tzuteko ote gaude?

Aita Santu on gizarajoak
ere badauka naiko lan,
ejenplo onak emanagatik
sarritan emen eta an.
Askatasuna gauzik onena
izango da gizonangan,
baña ez dakit martxa onetan
noraño iritxiko dan.

Gure Loiola eta Xabier'era ere etortzekoa
omen degu aurten Juan Paulo II. Jaungoikoak
lagun dezaiola ibillaldi bedeinkatu ortan eta
bare ditzala gure arteko ekaitzaldiak. Badauka-
gu premi ederra.

Senide gera kolore zuri,
beltz, urdin da gorrikoak,
alkar maitatu bear genduke
gertu ta urrutikoak.
Kriston etsaiak izango ziran
beti indar aundikoak,
baña gaur aiña izan ote du
Eliza katolikoak?

* * *

Maiatzak 16, igandeak 1982'an.

Atzo, San Isidro, Gaintza'ko gain zoraga-

rrian giñan Mugartegi bizkaitar bertsolaria eta biok. Dobleko jaia zuten ain zuzen: nekazariena bat, eta kultura-etxe bat idiki dute, euskal gobernuaren laguntzarekin.

Labaien ministroa ere etorri zan inaugurazio ortara. Aurreruntz ere laguntza oparoak agindu omen zizkien gaintzatarrerri. Izan ere, penagarri izango litzake erosotasunaren paltaz paraje ura bizirik gabe gelditzea. Udaletxeko gizonak ere lanerako daudela ematen du. Zorionak eta aurrera.

Eun da geiago bazkaldar bagiñan. Ura zan alaitasuna, ura!

Bazkal aurretik plazan da kafe-denboran maiean, geren eskasean guk ere egin giñuzen alegiñak. Oso pozik etxeratu giñan, San Migeletan joango giñala esanda.

Aize-leku aparta izango da ura. Orregatik dauka kanpantorrea aizeak botata. Baña aurki altxatzeko asmotan dira. Ta orain dabilkigun aize naastu onek ez ditzala gure erri txiki zoragarriak irentsi ta birrindu.

Len ere iñoiz izandakoa
gain zoragarri artara,
zorionean atzoko ortan
berriz izandu bertara.
Negu gogorra izan liteke,
zeruan pare udara,
aize sanoa artu nai duna
joan dedilla Gaintza'ra.

Erri aundita jeixteko ametsa
izandu zan garai baten,
gure arteko amets zoroak
asko ez dute irauten.
Geienak konturatu dirade
kale alden zer daukaten,
berriz jendea or asi zaigu
erri txikita joaten.

* * *

Maiatzak 17, astelena, 1982'an.

Marka gogoangarri bat atzo Mindegia aizkolariak jarri zuana. Lan ortara bakarrik etorri zan da bete zuan bere ametsa. Ogei kanaerdikotakoa ere berea dago aundiena; ta orain berrogei, irurogei ta emezortzi minutu ta berrogei ta iru segundoan bota ditu. Bakoitza, bataz beste, minutu bat eta berrogei ta emezortzi segundo.

Garai batean au iñork esan izan balu, erotzat artuko zuten. Ta ara zertara etorri geran. Badago sasoi gure apustu-gizonetan, sarri asko ez badu irauten ere.

Muestratxo bat: joan dan ostegunean Bera-koetxea aizkolari sonatua izandakoa il zan. Pakean beza atsedan. Aurreko urteko Ama Birjiñetan Areso'n jardun omen zan aizkoran, da orain berrogei ta zazpi urterekin betiko agurtu gaitu, modan dagoan gaitz bildurgarri orrek menderatuta.

Bazan ba zerbait ura ere. 1966'an, Españi'ko txapelketa irabazi zuanean, iñork etzuan estutu egun artan, Astibia, Errekalde, Polipaso, Zeberio, Arretxea ta Alberdi an izan arren.

Adiskide miña genduan. Gorriti'n bere etxean taberna zuten garai artan, da bertso saio ederrik egiñak gera, San Bartolometan da abar.

Ainbeste lagun da adiskide
joanak dauzkagu betiko,
karrera ori gelditzekorik
onuntz ez da etorriko.
Gu zer geraden ezagutzea
ez al zaigu komeniko?
Sasoi ederrak bagiñun baño
oso denbora gutxiko.

* * *

Maiatzak 19, asteazkena, 1982'an.

Askotan berriketa pranko ibiltzen degu, lana geiago dagoala gaur ere, egiteko gogoia baño. Gaurko egunkari *El Diario Vasco*'k eka-
rri duan berriak ez du orrelakorik adierazten.

Mondragoi'en, illai lurra ematekoa edo *enterradore* bat palta omen da, ta emeretzi lagun aurkeztu edo presentatu ortarako. Ni ere lantegi ortan amalau urte pasea naiz, ta ez da opizio gustagarria. Etzuan estimazio aundirik garai batean.

Gauzak bapo aldatu zaizkigu ta jan bear onek komeriak ditu.

«Goseak begik argi»
esaera zarra,
lana nai eta ezin,
daukagu gauz txarra.
Garai batean eskas
zan beso-indarra,
orain dago egin nai
ta egon bearra.

Lanikan gabe daude
makiña bat gazte,
pabrika ta tallerrak
gaizki dijoazte.
Onek eman bear du
ainbat buru-auste,
sarri oker guziak
ortikan datozte.

Garai baten bagendun
komeni ainbat lan,
pentsatzen ez genduna
nola etorri dan.
Bizi geran artean
ondo eran da jan,
iltzean izango da
zeñek lurra eman.

* * *

Maiatzak 23, igandea, 1982'an.

Atzo, arratsaldeko seiretan, apustu zoragarri bat ikusi genduan Tolosa'n: Polipaso zaarra bere berrogei ta amazazpi urterekin, da Iruntxiberry txikia berrogei ta bostekin, eun da emezortzi kilo lenengoak, ta berrogei ta amar bat bigarrenak, bina kanako egur nork lenago ebaki, amabost minutu lenago asten zalarik txikia.

Onek, aundia asterako, enbor baten erdia ta ondotoxoz geiago ebakita zeuzkan. Jende geienaren iritzia, Polipasok etzeukala zer egiñik. Izan ere, korajea ta ausardia bear zan orduan asteko. Denboraz aldatu zituan jendearen usteak.

Bigarren enborrean biak batera jira ziran, da Polipaso zaarrak lan danak ogei ta emezortzi minutun bukatu. Bere kontrarioak irurogei ta bat bear zitularik.

Biak dauzkate meritu izugarriak. Polipasori, itxurak diranez, urteak ez diote enbarazorik egi ten. Iruntxiberryk, berriz, kilo geiago ez-ta, jarri egin bear du kanakoen gañean.

Ik eure buruari
egin diok kaso,
bestela ezin zeikek
onela eraso.
Jokoa irabazi
ta diruak jaso,
urte askotarako,
lagun Polipaso!

Iruntxiberri jaio
zan korrikarako,
oraindik ere txarra
ez da ortarako.
Zalla da izatea
emen danerako,
gorputz arin samarra
kanakotarako.

Mendizabal aizkolariak ere marka arrigarri
bat jarri du gaur Aia'n. Apustu au zeukan egi-
ña: kanako bost enbor baietz ebaki, orain ama-
lau urte Latasa'k lau bota zituan baño azkarra-
go.

Latasa ere bazan ba norbait garai artan, da
Leitza'n bizi dan adunatarra berearekin erten
da, bost kanakoen kontu irurogei ta iru minutu
ta segundo batean emanaz, segundo batzuz
menderatuz sunbillatarrak lau kanakoetara zeu-
kan marka.

Garai bateko markak oso txiki gelditzen ari
zaizkigu. Badago gaurkoz sasoi ederrik.

Errespetoko gauza
len genduan kana,
baña oraingo ontan
galdu digu dana.
Australi'ko aizkoraz
egiten da lana,
bildurrik gabe joanaz
kanakoengana.

Gaur beste ikuskizun zoragarri bat ere bagenduan Anoeta'ko pelota-lekuan: txapelketaren azken partidua Erretegi II'garrena txapelduna ta Garcia Ariño IV'garrenaren artean.

Lengo txapeldun naparrak errex jantzi du irugarren aldiz txapela, bederatzi tantorekin bizkaitarra utzita. Ta berak ogei ta bi egiñaz, jakina.

Garai batean nork esan bear zigun naparrak bear zutela txapeldun pelotan da arri jasotzen? Ez al da izango gure alderdi ontan bizio asko ta erosotasun aundiak artu ditugulako?

Esaten dutenez, irugarren aldiz txapela jantzi duan mutiko au baso-mutil izana da pelotari aurretik. Bizimodu latza emandakoa seguru asko. Gaur etzaio damutuko, larre motxean azitako beste askori damutu etzaigun bezela.

Garzia Ariño'k ere baditu bere meritua. Bost aldiz erten da txapelketako azken partidua jokatzera. Bada norbait.

Pelota degu euskal semetan
odolean datorrena,
nere ustetan gaur ere bera
kirolikan jatorrena.
Bera dalako ezagutuak
gera munduan barrena,
biotz-biotzez milla zorion,
Erretegi bigarrena.

Garzia Ariño bizkaitar auxe
ez da mutiko makala,
ainbat urtean erakutsi du
pelotan norbait badala.
Irabazduna ta galtzallea
derrior bear dirala,
pentsa dezagun joko guziak
ori berekin daukala.

* * *

Maiatzak 28, ostirala, 1982'an.

Malvinas gora ta Malvinas bera, bada orain-
txe zer idatzia ta zer itzegiña mundu kaskar on-
tan.

Argentina inguruan dauden isla edo ugarte
auen nagusia Ingalterra zan aspalditxotik. Ta
ori begi onez ez ikusten argentinatarrak, garai
batean Argentina'renak baitziran.

Onez onean eskatu ta ez ematen Inglate-
rra'k, ta orain bi nazioak alkarri ortzak erakus-
ten asarre bizian, «au nerea dek eta ori nerea
dek», bi mutil koskor kanika batekin ibilli oi di-
ran bezela.

Ta, bien bitartean, kulpa gabeko ainbat gi-
zajo lur azpira betiko.

Mundua kezcati okerrenaren bildurrez.
Gaur goizean Erroma'ko Aita Santu Juan Pau-
lo II Londres'era joan da pakeak egin asmoz, ta
aurki Buenos Aires'era joango omen da. Ez di-
tezela alperrikako ibillaldiak izan.

Aita Santua or joan zaigu
Erroma'tikan Londres'a,
ekaitzaldia baretuzeko
ez da gizon aldrebesa.
Kristau geranak lagun deiogun
geren otoitz eta meza,
bestela emen pakea izaten
ez da izango erreza.

Londres'eraño joan zaiguna
joango da Buenos Aires'a,
odol geiago ixuri ez dedin
dabil estu eta presa.
Alderdi batek baietz badio
besteak dio ezetza,
sarri ortikan etorritzen da
munduko pakerik-eza.

Argentina ta Ingalterra'k or
daukate ainbeste auzi,
Malvinas ori artu nairikan
dana puskatu ta autsi.
Biak bakarrik balira utsa
beren arma eta guzi,
aingeru zaintzalleak dauzkate
Amerika ta Errusi.

Bi milla urte badira laste
Jesus jaio zitzaigula,
borondate oneko gizonai
pakea eskeñi zigula.
Gaur dagon ainbat gorroto emen
etzan izango sekula,
esan liteke alkar il arte
pozikan ez daukagula.

Gaur txarrerako jarria dago
ainbat indar eta kelmén,
gerraren bildur dira an eta
gerraren bildurrez emen.
Askok diote: Mundu txar onek
laister egingo du amen.
Jesus Aurtxoa alper-alperrik
jaio ote zan Belen'en?

Eskarmenturik asko badegu
gerrarekin mundutarrak,
milloika gizon izan baitira
lurpean sartu bearrak.
Onerako jarriko balira
aurrerapen da indarrak,
ezti-kutsutan bear lirake
emengo urte bakarrak.

Gizonak ez du bizi luzea
aundienera jota're,
azitarako iñor ez dago,
danak joango gerade.
Gaur zaartuta ainbeste zugaitz
atzo ziranak landare,
ispillu ortan pentsa dezagun
beste iñora joan gabe.

Gizonak ezin neurtu lezake
gerra zitalan kalterik:
ainbeste il da bizi diranak
berriz gorrotoz beterik,
etxe ta erriak dana txikitu,
zernai ez dago jaterik.
Ori guzia badakigu ta
ezin iritxi pakerik.

Sua piztua sumatutzen da
munduaren lau iskiñez,
zakur aundiak zaitzen daudela
erregalorik aundiñez.
Arma-pabrikak lanean dabiltz
pilla galantak egiñez,
nundikan nora lertuko diran
Jainkoak bestek jakiñ ez.

Bertsolarien ametsa beti
emen izan da pakera,
Xenpelar zanan bertsoaz ere
sarri gogoratzen gera.
Mundu txar onek izan ez dezan
dana kiskaltzeko era,
Jaunari otoitz egin deiogun
Aita Santukin batera.

* * *

Maiatzak 29, larunbata, 1982'an.

Atzo egunkari edo periodiko batean irakurtzen nuanez, ogei ta amasei milla milloi peztarren galerak omen dira España'n legortearekin. Bada zerbait. Len baju baldin bagaude ere, etzaigu bizimodurik merkatuko.

Ta, ori ala izanik, Barcelona omen dabil argentinar Maradona fubolista zazpireun milloi pagatzeko asmotan. Barcelona'ko buru dan Nuñez jaunak esan duanez, diru-pil ori dana ordainduta ere negozioa egingo omen du. Beajondaiola!

Emengo baserritarrak, eta besteak ere nik ala uste, pabrikako modura ezin ordaindu mutillik. Ez duala konturik. Eta, bien bitartean, ainbeste milloi pagatzen mutilla, baloi bati ostikoak emateko.

Nere iritziz, bapo aldrebestu gera mundutarrak; eta, bizi geran artean, ikusiko degu zer gertatzen dan.

Pozaren billa nekatu arren
orra etorri negarra:
legorteakin galdu dirade
garia ta garagarra.
Bada oraintxe aurrerapena,
bada oraintxe indarra,
baña gizonak beti izango du
goiko laguntzan bearra.

Aldea dago lantegi baten
edo beste baten asi,
gizonak nai du askatasuna,
ori ezin galerazi.
Batzuk baloiai ostikok eman
da milloiak irabazi,
ta nekazari gizarajoa
lan eginda ezin bizi.

Zenbateraño erotu geran
ez baitago sinisterik:
ostikolari baten soldata
onenbeste iristerik.
Kutsatu gabe ez gaude iñor
ez zar eta ez gazterik,
naiko fubola izan dedilla,
ez degu bear besterik.

* * *

Maiatzak 30, igandea, 1982'an.

Atzo apaltzera Oiartzun'go Aduriz sagardotegira joan bearra izan nuan. Usurbil'ko lau bertsolari jokutzen ziran Oiartzun'go lauen kontra, ta ni jarri ninduten juez, ain zuzen, beste batzuen artean.

Bapo apaldu, bertsoak entzun, naiko jende ta umore ederra. Usurbildarrak irabazi zuten. Baña bertsorik onenarentzat zegoan saria Oiartzun'en gelditu zan.

Sagardotegirako deia zan,
guk berriz pozik erantzun,
garai bateko bertsolaritzak
bizia ortxe izan zun.

Euskeran onerako da eta
zerbait e sortu bear zun,
nere zorion maitekorrenak,
Usurbil eta Oiartzun.

* * *

Maiatzak 31, astelena, 1982'an.

Oiartzun erri berean, atzo Lexoti lagun aztu eziña omendu dute.

Altzibar auzoan meza santu batekin eman zitzaion jai-aldiari asiera. Lizaso Kosmek eta biok kantatu genduan elizan, Joan Maria Lekuona ta Aita Zabala bertsolarien bi gidariak meza-emale zirala.

Itzaldi goxo ta samurra Joan Marirena. Izan ere, bertsolaritzak ez du berarentzat ezkuturik.

Madalensoro frontoi ederrean zan jaialdi nagusia. Lazkao-Txiki, Mitxelena, Lizaso Kosme, Agirre, Xanpun da nik kantatu genduan. Uzta-pideren lau bertso ere kantatu ziran. Jendea ondo zan.

Erregaliak jaso ta bi bertso txukunekin eskerak eman zituan Lexotik, ondoren *Atamitx'*era bazkaltzera joateko. Bazan umore ederrik bazkalondoan.

Jai-klase aukeratu duten bitartean, biziko zaigu euskera ere.

Lexoti omendu dute
bere erritarrak,
pozik joan giñaden
lengo lagun zarrak.
Igarotako orduak
etziraden txarrak,
bapo tristetu giñun
etxera bearrak.

Lexoti omendutzeko
jendean arreta,
danak makurturikan
oitura zarreta.
Oiartzun dana zegon
umorez beteta,
euskera ta bertsoa
bizirik daude-ta.

Oiartzun maite degu
guk aspalditxoti,
arrenbeste oroipen
badegu-ta orti.
Gusto txarrik ez degu
berriz atzokoti,
urte askotarako
lagun zar, Lexoti!

* * *

Garagarrillak 7, astelena, 1982'an.

Egun aundia atzokoa Naparroa'ko Ezkurra'rako. Mindegia aizkolari txapelduna omentzen baitzuten, bertako semea danez; ta ez daukate saltzeko, itxurak diranez.

An ziran Euzkadi'ko aizkolari, arri-jasotzaille ta korrikalaririk onenak. Bai ondo bete ere beren egitekoa. Artu zuan jendeak gozatu ederrrik.

Prontoi estalia daukate gaur Ezkurra'n, da aren bedeinkapena ere izan zan. Ta nola ez? Bai pelota-partidu ederra ere, aari-joko, ollar-apus-tu... Zer etzan an?

Txistulari ta trikilaria bezela, Egileor ta nik ere egin genduan geren alegintxo.

Alkartasun-bazkaria, berriz, prontoian bertan genduan, irureun bat bazkaldar bertan giñalarik.

Erregaliak jasotzeko denboran, bazuan gurdikada bat opari aizkolari txapeldunak. Egon li-

teke kontentu ta pozik gure mutilla. Berak mikrofonotik sakonki eskertu giñun, bere aita-amarrengandik asita.

Zorionak bein da berriro Ezkurra'ko Udaltxe ta parte-artzalle guziaz. Nunaiko euskalduna ikusten zan: naparra bezelaxe, gipuzkoarra. Gure joko ta mutillak badute oraindik maitalerik.

Igarotako eguna gendun
goxoa eta samurra,
an etzegoen ezereen paltik,
nunai zorion agurra.
Danak pozikan etxeratuak,
ori da gauza ziurra,
oso kontentu egon litezke,
Mindegia ta Ezkurra.

* * *

Garagarrillak 10, Korpus-eguna, 1982'an.

Gaur egun aundia genduan gure sendi artean. Ama zanaren aizpa batek berrogei ta amar urte bete ditu Jesusen Alaben Ordenan; urrezko eztaiak, beraz.

Berrobi'koa zanez, Tolosa'ko konbentuan sartu omen zan 1932'an, ogei ta bi urterekin. Galartza'tar Maria Kruz beraren izena.

Lisboa ta España'ko beste leku askotan ibilli ondoren, bere abitua artu zuan etxean egokitu zaio jai aundi ori igarotzea, senide, illoba ta beste aide guzien artean.

Zorionak, izeba, bein da berriro! Zure lan
ixil-luzea Algutidunak gogoan edukiko du, ta
aurrera urte askotan!

Amabi t'erdietan genduan meza konbentu-
ko kapillatxoan. Jaunari eskerrak eman ez, es-
keintzako denboran lau bertso auek kantatu ni-
tuan:

Gurutz batetik zintzilikatuz
bizia eman zuana,
emen bestela salbaziorik
etzan iristen gugana.
Gorputza guri janari utzita
Aitan ondora joana,
oraindik askok sinisten degu
erakutsi zenduana.

Mojatxo batek berrogeitamar
urtez egin du aitormen,
etxe ontantxe sartuko zan da
gaur e gertatzen da emen.
Jaun Zerukoa, eman zaiozu
naiko indar eta kelmak,
pekatariak oien bearren
nola arkitzen geraden.

Berrogeitamar urtetan gauzak
asko aldatu dirade,
pekatariak gera gizonak,
ala izango gerade.
Alguztiduna, Zu egin zaitez
gure eskarian jabe,
Euskalerrian nola daukagun
ainbat pena ta naigabe.

Egun batean galdu giñuzen
pake santuko egoak,
besteren mende ez degu egon nai,
guk nai degu lenengoak.
Mundu guziko berriak dira,
ez bakarrik emengoak,
sinismenean oztu giñan da
badatoz ondorengoak.

Bazkari anaikor bat patxaran egin gendua-
nean, bazan umorea. Neri pentsamentu auek
etorri zitzaizkidan burura: Aurki izango al da
mojarik? Gaur auek egiten duten lan ixil da
umilla, zeñek egin bear du laiste?

Idazle pamatu batek au idatzi du oraindik
denbora asko ez dala: euskaldun neska gazteak
bi ezetz eman dituala: bat, moja joateari; ta bes-
tea, basarriko ezkontzari.

Baliteke biar edo etzi beste aize batzuk izatea; baña gaurkoz ala daude gauzak.

Urte auetan erlijioa
ez dago sendo ta alai,
askatasuna gurea da ta
orain da munduko garai.
Konbentu baten zertako bizi
Jaungoikoaren sari-zai?
Gaur moja iñor gutxi joaten da,
sartu ziranak erten bai.

Jaungoikoakin ezkonduzea
dago modatik joana,
mundutar mutil jator bat baita
neskatx batek nai duana.
Ainbeste edertasun aukeran
mundu ontan dagoana,
askotan ezin iritxi arren
amets egiten zuana.

Iñorrek ezin uka lezake
ezkontzak duan grazia,
baña lorean aldamenean
sarritan dago sasia.
Begiak zabal dauzkagun danak
ondo degu ikusia,
askotan ez dutela iritxi
pentsatzen zuten guzia.

Udaberriko egun alaiez
loretan dagoanean,
eta erleak bere ingurun
buelbaka dabilzanean.
Baña ekaitza etorritzen da
usterik gutxienean,
moja joan balitz askozaz obe
izango zan onenean.

Gaurko munduak berekin ditu
ainbeste engañagarri,
lore polit bat konbentu baten
nola demontretan jarri?
Zenbat bikote ezkondu diran
baietz esanda alkarri,
baña ondoren zoriontsurik
beti ez dute ekarri.

Garai batean alaba pranko
konbentutara joanak,
lagun urkoai on egiteko
abituz jantzi ziranak.
Jakingo dute nik bezelaxe
premian izan diranak,
ondo eskertu bear lirake
egiten dituzten lanak.

Ezkontzan bidez lore tartean
bizi naiean beti gu,
besteren esanak entzuteko
geok geiegi dakigu.
Lotura eta neke-aldiak
onik egiten ez digu,
basarriaren galera ere
ortikan etorri zaigu.

Lengo konturik orain ez dago,
ez erri eta ez etxe,
al dan ondona bizi nai degu
jantzi, mantendu ta kotxe.
Oporraldian urrutira joan,
al bada gozatu antxe,
zoriona ta pakea nekez
len giñuzen bezelaxe.

Pena ematen du gaurko egunez
ainbeste ezkontza-auste,
garai bateko amets txoroak
bapo aldatu dituzte.
Onekin gauzik zuzentzen danik
Garmendia'k ez du uste,
maitasunaren etsai gaiztoak
engañatutzen gaituzte.

Asko dirade abortoa're
emen eskatzen dutenak,
mundu kaskar au paradisoa
biurtu nai lutekenak.
Bai omen dira nazio batzuk
lege orrekin daudenak,
amaika aldiz pagatutzen du
kulparikan ez duenak.

Galdu giñuzen errespetoak,
osatu gera pikardiz,
gure Euskalerra maitekor ontan
zutik egonak gizaldiz.
Konbentu eliz uzten ditugu
agindu gabe bi aldiz,
gureak giñun ainbat oitura
ez dira etorriko berriz.

Askorentzako izate dana
bukatutzen da munduan,
ainbeste moja konbentuetan
zertako daude orduan?
Zuek aurrera jarrai zazute
orain arteko moduan,
egunen baten ikusiko da
arrazoia zeñek duan.

Garagarrillak 15, asteartea, 1982'an.

Gaurko *El Diario Vasco*'n, Basarrik bere sailean au zion: errebista baten irakurri duanarekin arrituta dagoala.

Ez da gutxiagotarako. Pazifiko Pasetto prai-learen lan bat omen zekarren dalako errebista orrek, ta onela dio:

Munduko nazio bakarra Txina dala maletak idikita, mesillan dirua aztuta, erretratatzeko makina kalean utzita, lasai ibilli leikena. Itxurak diranez, iñork ez die eskurik erasten. Badaukate gure antza!

Berak gure aldean pobreak omen dira. Baña lengo zarretatik datorren jatortasun bati eusten diote.

Propinik ere ez omen dute nai. Iñork eskeintzen badie, naigabetuta jartzen dira.

Nazio artan, aragikerizko edo lizunkerizko lanik eta erretratorik ez omen da periodiko eta errebistetan. Gau-txoriak jolasteko lekurik ere ez.

Badago alde ederra gure ontatik. Adibidez, emen lapurretarik egin gabe ezin degunak baka-rrik gaudela esango nuke.

Nik ez dakit zer erlijio-klase izango duten; baña ango oitura batzuk pozik artu litezke gure kristau erri izeneko ontan.

Bertsoan bidez sartu nai nuke
oso arrazoi sendota.
gure artean zer gertatzen dan
jakinda gaude ondo-ta.
Aukerik bada besten gauzari
eskuak aguro bota,
zazpigarrenago agindu ori
alper-alperrik dago-ta.

Zazpigarrenago agindu orrek
leno bazuan adurra,
besteren gauza errespetatzen
euskalduna zan ziurra.
Belardietan belarran gisa
ugaritu da lapurra,
bi peztan jabe izateak e
gaur ematen du bildurra.

Patrikan dezun dirua dala,
berdin motor eta kotxe,
iñun ez dago segurantzirik
ez kanpo eta ez etxe.
Zakur amorratuan gisara
jarrita gaude oraintxe,
gizona ere lapurtzen dute
ollo zar bat bezelaxe.

Gizona ostu ta ondo gorde,
gero dirua eskatu,
bi bide daude: bizia edo
milloian bidez askatu.
Amar bat ordu lana eginda
zertan gerriak puskatu?
Aberasteko martxa oberik
ezin liteke asmatu.

Kotxea ere uzten badezu
baztar batean aberiz,
baliosorik ezer badauka
laister joko dute begiz.
Garajen batera azkar eman
lengoa nai bada berriz,
nun bizi geran jakingo dezu
lasai antzean bazabiltz.

Lapur-kontua izaten gendun
lenago ijitoena,
ijito zuri asko ez al da
orain emen dagoena?
Lanik egin ez ta bizi nairik
al liteken ondoena,
sarritan orrek kezkatutzen du
bi pezeta dituen.

Kezkati dago maizterra eta
kezkati da nagusia.
ainbeste jende lanikan gabe
ori da emengo auzia.
Ori ugaltzen joango da eta
estutuko da bizia,
lapurak egin bear badute
pentsatutako guzia.

Gaur aiña lapur gure artean
etzan izango sekula,
jarri gerade besterenakin
gozamina daukagula.
Ondo dakit nik emen goseak
begiak argi ditula,
esango nuke bizioz ere
askok lapurtzen degula.

Lapurretarik egin gabe emen
ez da pasako ordurik,
kristautasunak ditun legeak
bapo dauzkagu galdurik.
Berri jakiñak egunero egun
periodikuk zabaldurik,
emen ez dago oso urrean
Txina'ko bizimodurik.

Txina'tar oiek nunbait ez dute
griñik lapurretarako,
propinik ere ez dute artzen
legetik kanpo dalako.
Gau-txorintzako lekurik ez da
eta gaua lotarako,
lege ederrak ez dira oiek
Euskalerra ontarako.

Zenbateraño okertu geran
ez baidago sinisterik,
txinatar oien oituretara
ez daukagu iristerik.
Aukerik bada besteren gauzik
iñola ez dago uzterik,
nik pentsatzen det ez daukagula
kristau izena besterik.

Bakoitzak buru bana badegu
eta ainbeste iritzi,
alkarri errespetatutzero
ezin gerade iritxi.
Egizko demokrazi batean
baldin nai badegu bizi,
gerenarekin saia gaitezen,
bestenai pakean utzi.

* * *

Garagarrillak 17, osteguna, 1982'an.

Gaur bi urte nik okerra izan nuala, ta oraindik bi makulurekin nabil. Zer errex esaten dan! Miñik ez daukat, Jaungoikoari eskerrak. Medikuak diotenez, berriz, ondo nijoa, ta aurrera.

Mundu txar ontan ainbat ezbear,
onek pena ematen du:
momentu baten okerra egin,
bi urtez ezin konpondu.
Alare neri gure Jainkoak
ez baidit gutxi lagundu,
nik izan dedan suertea ere
danak ez dute izandu.

Okerran berri ondo dakite
gure kamio laztuak,
palta zaizkigun ainbeste lagun
guk ez dauzkagu aztuak.
Asko dirade ezurak autsi
ta bertan odol-ustuak,
zenbat pamili negarrez dauden
betiko aldrebestuak!

Bakoitza bere egitetara
osasuntsu ta indarrez,
beste biderik ez da ikusten:
motorrak jarri su-garrez.
Etxera berriz etorriko dan
esaten ez dago errez,
oiean ainbat jende iltzen da
kamioko ezbearrez.

Aurrerapenan bidez oi degu
bizimodua tajutu,
bestela ez dago zer egiñikan,
derrior bear makurtu.
Millaka anai eta arrebik
etzan geldituko mutu,
gasolinaren azkartasunik
ez bagendu ezagutu.

Aurrerapenak onak dirade
zentzuz zuzentzen badira,
zabarkeritik ainbeste oker
guregana etorri da.
Eran-zaleak gerade baño
neurri baten komeni da,
denbora joanda gero damuak
emen alperrikan dira.

Paret arbolak gertuan dira
sarri eskubi ta ezker,
bien artean joaten ez danak
gelditu bearko laister.
Gorputza ondo deskantsatzea,
gauza obeagorik zer?
Loaren paltan etorri leike
eranakin ainbat oker.

Eraria ta loaren palta
etsai aundik ditugula,
ta astearen azken aldera
inguratzen zaizkigula.
Orain ainbeste oker ta ezbear
etzan izango sekula,
iruditzen zait konturatzeko
oraintxe garai degula.

Ezbear bidez amaika lagun
dauzkagu mundutik junak,
gure artera emen berriro
bilduko etzaizkigunak.
Laguntasun bat egin deigula
denon gidari dan Jaunak,
bera zaindutzen saia gaitezen
bizi bakarra degunak.

* * *

Garagarrillak 20, igandea, 1982'an.

Gaur Naparroa'ko Etxarri-Larraun'en izan-
du naiz. Ango basarri bateko aiton-amonak be-
ren ezkontzako urrezko eztaiak zituzten.

Berrogei ta amar urte errian bertan alkarri
itza eman ziotela, ta oraindik gordin ta osasun-
tsu daude zorionez, pamili eder bat loratu ondo-
ren.

Eguardian meza, Jaunari eskerrak emanaz.
Erriaren otoitz-denboran bi bertso auek kanta-
tu nituan:

Txoriak nunai kantari daude,
eguzkia dizdilari,
gaur eliz ontan bildu gerade
pozik eta otoizlari.
Berrogeitamar urtetan eutsi
bein emandako itzari,
Jaun Zerukoa, lagun zaiezu
Kalisto ta Prantxiskari.

Egun batean alkartu ziran
maitasunaren besotan,
geroztik zenbat gora-bera or
beren zelai ta basotan.
Danon Jabea, lagun zaiezu
mundu ontako pausotan,
kukuan otsa entzun dezaten
beste udaberri askotan.

Basarrian bertan genduan bazkaria, ta ez nolanaikoa. Aiton-amonak —nola ez?— etziran asarre, seme-alabez eta ondorengo guziz inguratuturik. Bazan umorea ta kantua.

Basarriko martxa, berriz, ortik onerakoa. Ogei ta bost esne-bei daude, zein baño zein, azkeneko aurrerapen guziakin jarriak. Bai zekor ta zerrama bikañik ere.

Lareun bat ardi ba omen dituzte mendian, ardiak ere makinaz jeizten dirala, ortarako leku aproposak jarrita. Tratore ta gurdi, berriz, oraingo modakoak.

Poz ematen du basarri batzuk aurrera-bidean ikusteak. Zorionak danai ta batez ere Kalisto ta Prantziskari.

Gaurko eguna guretzako zan
alaitsu eta pozgarri,
puska bateko usai gozoa
etxe aldera ekarri.

An oraindikan indartsu daude
ez dakit zenbat basarri,
oiek zutikan dauden artean
etzaigu ilko Etxarri.

Napar aldeak berekin ditu
orrenbeste sail emankor,
egunero jan bear deguna
sarritan ortikan dator.

Burnia eta papera janda
emen ez da bizi iñor,
itxasotikan edo lurretik
artu bear da derrior.

Erri txikiak ustü dira ta
aundiak berriz gañeztu,
pabriketako irabaziaz
gazteri dana lañeztu.
Kalea ere orain jarri da
naiko larri eta estu,
egunero jan bear degu ta
onek bromarikan eztu.

Itxasoa da ainbat mokadu
goxo ematen diguna,
bañan ez dago oso merkea
ortikan datorkiguna.
Garai batean klase guziak
gure aukeran zituna,
zabarrak izan geralako gu
antzutzen ari zaiguna.

* * *

*Garagarrillak 24, San Juan, osteguna,
1982'an.*

Naparroa'ko Igantzi txoko politean giñan
Lizaso Kosme ta biok. Zaarren eguna ospatzen
zuten.

Ortik kanpo, badute aspalditik datorren oitura bat: San Juan-iturri deritzaion ar-zuloan ura edan da erropak garbitu ta meza entzun, santuaren irudiari muin eman, kandelatxo bat piztuta utzi, erroskillak erosi ta etxera.

Oiartzuarrak eta Aranaztarrak ere ikusi ginituan erromeri ortan.

Apaizak bere sermoi-garaian itz bixiak esan zizkigun:

Aurrerapen-bidez gizonaren bizia luzatu egin omen da, baña baita arazo berri bat sortu ere. Zaar jendea ugaritu da. Oieri nola kontu egin? Oientzako jarritako etxe guziak lekurik gabe daudela; etxe askotan enbarazo ta sobratuak. Igantzi'n bertan, larogei ta amaika zaar edo jubilatatu dirala, seireun ta berrogei danak diralarik.

Eman zigun zer pentsatu.

Askorentzat luzatu
munduko plazoa,
bizitza ez izan arren
beti eroso.
Ez degu maitatu nai
zarra ta gaixoa,
aurrerapenak sortu
digun arazoa.

Erriko *soziedade* edo elkartean genduan bazkaria, zaar-mordo bat lagun gendularik. Bazan umorea, soñu ta bertso bazkalondoan. Zorionak zaar, antolatzaile ta parte-artzaile guztiai.

Igantzi'ko euskaldun jator batzuekin mintzatu giñan. Euskeraren etorkizunak zeuzkan kezkatuta. Erri ortan bertan, gaztetxoan artean asko galdu dala zioten.

Gu ere iritzi berdiñekoak giñala aitortu genien. Ainbeste ikastola ta propaganda, jaialdiak zer esanik ez, orma edo pareta guziak gure izkuntzaren aldeko izki edo letrak, da ala ere gure euskera gaxoa urtetik urtera makalago. Onek lanak ditu sinisten.

Kale aldean galdu zitzaigun,
orain mendiko erritan,
azken kanpaiak laster ditula
pentsatu izan det sarritan.
Gure izkuntza maite bagendu
propagandaren neurritan,
erdi gaxorik dagona azkar
genduke indar berritan.

Oso mendi-erri polita ta Igantzi. Baditu basarri ta terreno ederrak. Ardiz ere ondo, naiko mendi dualarik. Nere ustez, gero ta istimazio geiago izango dute onelako parajeak, kalean ere ez da giro-ta.

Gaur aiña ez da iñoiz eskertu
mendiko aize garbirik,
kale-zuloan ezin gozatu
egunsentiko argirik.

Ez bedi palta bei eta zaldi,
txerririk eta ardirik,
gure izkuntza maitagarriak
itxi ezean begirik,
gu ilko gera baño ez pentsa
iltzea Euskalerririk.

* * *

Garagarrillak 27, igandea, 1982'an.

Pamili edo sendi arteko pesta genduan gaurkoa: gure lengusu baten —senide bezela ibiltzen gera— aurtxoaren bataioa Berrobi'n, amar ta erdietako meza nagusian. Mainer jarri diote izena. Ondoren, bazkari eder bat erriko *zentroan*. Da andik aurrera ez dago esan bearrik.

Maiatzan iruan jaio zan da
gaur eguardiz bataiatu,
bere izena izandu dezan
Mainer gendun aukeratu.
Elizaren alaba eginda
etsai danak kanporatu,
ta artu duan grazi ederra
iñoiz ez beza mudatu.

Gaur egin duan aitormen ori
izango al du gogoan?
Zenbat mudantza izandu diran
emen etorri ta joan!

Azi bitarte zeru-kutsutan
gurasoaren ondoan,
da Jaungoikoak bakarrik daki
zer ikusteko dagoan.

Pelipe eta Bixenta dira
guraso zorionduak,
au bosgarren landarea dute,
danak ondo izanduak.
Sarritan emen arpegi ederra
ez du jarritzen munduak,
ekaitzaldiak baretutzeko
lagun dezala zeruak.

Erramon eta Maritxu dira
eliz-ponteko guraso,
zuzendu bearko dituztenak
makiñatxo bat arazo.
Pentsatzen ez dan lekutik emen
etsaiak oi du eraso,
iñoiz erortzen baldin bazaigu
lengo lekuraño jaso.

Zenbat naigabe, zenbat ezbear
gure mundu aldrebesan,
giro onean bizi generala
gaur e ezin leike esan.
Len e baziran urte gogorrak,
beti zoriona etzan,
saia gaitezen gure erriak
ondorena izan dezan.

Gaurko onetan dana izan da
garbi, txukun eta eder,
guraso eta gañontzekoak
ezti-kutsutan ia ler.
trumoi-aldia edo ekaitza
uste gutxinean ager,
eguzki txurin ekartzallea
izan zaitea zu, Maider.

* * *

Uztailak 4, igandea, 1982'an.

Gaur Tolosa ondoko Txarama'n izan gera Kosme Lizaso ta biok. Zaarren eguna ospatzen zuten. Auzo ori Leaburu-Gaztelura tokatzen danez, or ziran erri oietako zaar guziak mezetan, eta ondorenean bazkaltzen, alkartasun ederrean.

Meza ta bazkari artean, bazan sokatiralari, aizkolari, trikitixa, bertso ta abar. Bazkalondoko umorea, berriz, ez dago esan bearrik. Bazirudian aiton-amon asko gaztetu zirala.

Oraindik gordin dauden bi amonaxoren ondoan bazkaltzeko zoria izan nuan. Lana galanki egindakoak beren denboran. Ala zioten beintzat.

– Onela biziko giñanik garai batean ez genduan uste. Au zerua da.

Izan ere, orain aiña laguntz noiz izan du zaar jendeak? Badakit gauz asko dagoala oraindik egiteko. Baña amon aiek ziotena egia da.

Adibidez, basarriko aiton-amonak etzuten iñongo diru-laguntzarik. Gazte denboran so-

braturik ere ez. Ta askotan, seme-alabakin ere nolabait. Gaur, berriz, illaren azkenean or dute beren diru-mordoska. Amaika zaar badago, perira joan da lasai meriendatzen duana.

Ondo egiña gañera. Zer arraio! Beti lanean? Len ere naikoa egiñak daude.

Aiton amonen bizi-modua
asko ez al da legundu?
Irriparrezka ikusten dira,
onek poza ematen du.
Amaika neke ta lan egiñak,
geldi etziran egondu,
orain daukaten suertea ere
danak etzuten izandu.

Zaar jendeak gaur ez daduka
len zan ainbat buruauste,
illero dauden soldatatxoak
pozik jasotzen dituzte.
Gastatuzeko danak ez daude
osasuntsu eta gazte,
baña modua dezuten danak
oraintxe saia zaitzte.

Aiton-amonak ez dira noski
ezti-kutsutan aziak,
kristau dotriña ikasi orduko
lanean gogor asiak.

Gaurko konturik etzan orduan,
sarritan urte gaziak,
orain dauzkaten sariak dira
ederki irabaziak.

* * *

Uztailak 8, osteguna, 1982'an.

Gazteiz'ko Foronda «pixti-zelai» ortara joan gera kotxe batean bi lagun, emakume baten billa, arratsaldeko iruretarako.

Sevilla'tik zetorren, Donosti'n bizi dan euskaldun au. Andaluzi alde ortan bero ikusgarriak egiten omen ditu, baña gaurko emengo onekin arrituta zegoan. Olakorik ez omen du an ezagutu.

Izan ere, gaur, besteak beste, Andoain'dik Beasain'era bitarte ortan berrogei ta amar gradu inguru ibilliko zan, da bada zerbait. Irurogei ta amabi urtean emen bizi dan basserritar batek au zion:

– Gaurkoa bezelakorik nik ez det ezagutu.

Kotxea abiada izugarri batean zijoalarik, leio-zulo guziak itxita girorik onena jartzen zan. Kristalak jetxi ta eskua aterata, erre egin bear. Ortikan pentsatu.

Gazteiz alde ortan gariak lurretik arra beterra burutuak daude ta oraintxe elduak. Baliteke gari puska bat izatea, baña lastorik ez da izango, legortearen legorrez.

An patatak oraintxe irabazi bear dute, ta naiko triste daude.

Badirudi legorte izugarri baten asieran gaudela.

Foronda'ko edari-lekuan bi botellatxo zerbez berrogei ta amalau duro ordaindu giñuzen. Baña martxa ontan ura ere galestituko zaigu ederki. Eskasia bezelakorik ez dago bizimodua galestitzeko. Gerenez arroak bagera ere, baliteke umiltzea.

Amaika aldiz kejatzen giñan
beti euritan giñala,
egualdiaren segurantzirik
Euskalerrian ez dala,
eguzki billa zetozen danak
azkar joaten zirala,
iruditzen zait aurtengo ontan
bapo beztuko gerala.

Biziak emen irauten digu
janean da eranean,
sarri ez ditugu maitatutzen
aukeran dauzkagunean.
Arroak ere umiltzen dira
azkar gaurko egunean,
lenago errex etortzen zana
agortzen zaiotenean.

Eguzki ori ona da baña
euria bear tarteko,
emen bestela ez dago ezer
erateko ta jateko.
Aurrerapenak gañezka daude
zoriontsu izateko,
egualdiaren utsune latza
gizonak ez du beteko.

Orain ainbeste eguzki-gose
etzan izango sekula,
pentsatuzten det aurtengo ontan
naikoa izango degula.
Jarri gerade erropak ere
kalte egiten digula,
euri-zaparra eder batzukin
Jainkoak lagun deigula.

* * *

Uztailak 10, larunbata, 1982'an.

Zumai'ko lagun-talde batek deituta, an izandu nintzan bazkaltzen, soziedade edo elkar-te baten. Bertsolari bakarra naiko urri gelditzen da; baña ala jan da edan egin ezkerro, ez dago bildurrik.

Egualdia ere alakoxea zan da bazuten ixtimazioa itxas-eskiñak. Ura kotxe-pilla eta jen-

dearen etorrera! Orain larunbata jai egiten dan ontan, bi eguneko ateratzen da jendea.

Euskalerriko itxaso-bazterrak, berriz, badu alakoxe adur bat. Nai duanak, arrantza, bus-tialdia edo eguzkitan ondartzatza. Baita mokadu goxoak ere, txakoliña edanez.

Pena da euskaldunak alkarrekin gabiltzan bezela ibilli bearra.

Krisisa dagoala diogu sarri, ta ala egongo da etxe askotan. Baña kalean ez du olakorik ematen. Astean bi egun jai, ta presupuesto aundiarekin gañera. Jatetxe ta kapeteri danak gañezka, jatenik eta edaririk piñenak artuaz.

Askotan galdera au egiten diot nere buruari:

— Emen baño obeto, jenderik bizi ote da iñun?

Jatetxe kapeteri
guziak beteak,
goiz alderarte ezin
itxirik atea.
Berdin soziedade
edo alkarteak,
merezi baitu ondo
bizi izateak.

Astean bost egunez
laneko egintza,
beste bi egunetan
errenditzen gaitza.

Naiz justu-antxen izan
etxeko bizona,
kale aldean beintzat
aberats gabiltza.

Gu osatzen gerade
itxaso ta mendiz,
jan-eraketik sobra
badaukagu berriz.
Laño beltz trakestuak
inguruan dabiltz,
Jauna, erruki zaitez
gure Euskalerriz.

* * *

Uztailak 18, igandea, 1982'an.

Atzo arratsean, amar t'erdietan, Gabiri'ko
Aztiri'n kantatu genduan, len askotan aitatu
izan detan pago azpian. Pestetan daude ta ogei
urte ta geiagotan nijoa aruntz, kantatzera. Baña
beti egunez. Orain ematen du gauera itzuli dira-
la an ere.

Lasarte, Igarzabal, Agirre Bittor ta ni giñan.
Lazkao-Txiki zan joatekoa. Au etzan azaldu, ta
onen lekuan Aguirre'k bete zuan aren egitekoa.

Jende askorik gabe egin giñuzen gure lanak.
Baña an ziranak, bertsoak entzutera joanda-
koak ziran da gau gozoa izan zan.

Aztiri'k badu alakoxe grazi aparta, plaza-
inguruak pago zoragarritz dauzkala. Zugaitz-

klase au ugari egongo balitz, ez luke alako grazirik izango. An ere nunai piñua dago ordea. Paltatzen danean oroitzen gera bere balioetzaz.

«Bertso-saioa aurten gauean»
esaten nun nerekiko,
nunbait egunez pesta jartzerik
orain ez da komeniko.
Garai bateko oitura asko
galdu zaizkigu betiko,
pagoak zutik ditun artean
Aztiri etzaigu ilko.

Plazan ondoan bolatokia,
eliza're badaukate,
jan-eraneko kezkek ez dago,
ostatu eta alkarte.
Mendi bikañak gertu dituzte,
kalea ez da aparte,
ai, Aztiri'ko anai-arrebak,
zoriontsuak zerate!

Soldadu lagun bat badet bertan
da Makatza'koa bera,
amaika broma eta umore
pasa genduan batera.
Iñoiz-iñoizka izaten degu
alkar ikusteko era,
Euskalerriko etorkizunaz
sari kezkaturzen gera.

Lagun zar ori ez da makala,
aspalditxotik dakit nik,
iñor ez dago etorkizuna
bear ainbeste dakinik.
Gure erriko ainbat arazo
nola dabilzan jakiñik,
sarritan esaten deguna da:
ez dagola zer egiñik.

* * *

Gaur, berriz, Martutene'n izan gera Etxeberria ta biok. Ikastolako lendakari-aldaketa da. Orren inguruan zan pesta-giroa. Lanerako go-goarekin daudela dirudi Martutenetarrak. Zerbaiten bearra badago.

Barkaiztegi'ko sagardotegian larogei bat bazkaldar bildu giñan, umore ederrekoak danak, alako etxean. Epelde ta Egurbide trikitilariak, bertsolari ta kantu. Zeru txiki bat biurtu zan ango kupel-arte.

Zorionak danai ta lan onuragarriak egin ditzala lendakari berriak.

Sarri tristetzen gera
erdera geiegiz,
Martutene auzoan
poztu gera berriz.
Euskera nai genduke
auzo eta erriz,
beintzat ez bedi galdu
gure zabarkeriz.

Martutene'ra joaterako, Lasarte'ko Txikierdi'n gosaldu genduan. Baita Itziar'ko zezena-leak ere. Trintxerpe'tik etxe aldera zijoazen, an gauean zezenakin ibillita. Alkar-izketa gozoa gurea.

Erri asko kontatu zizkiguten, gauean zezenak botatzen zituztenak. Goizeko irurak edo laurak ordua. Gu ere ez gera beti erretira ona egindakoak. Baña orain aiña ixtimazio etzuan izango sekula gauak.

Badira pixti batzuk, beti gauez ibiltzen diranak. Adibidez, ontza. Gizonari ere ori komeni ote zaio? Edo zer ikusi bear degu?

Eletrizidade-indar eskasia dagoala; al dan gutxiena gastatu bear dala... Leku ederrean! Da bitartean, Jaungoikoak ematen digun argia ez degu asko eskertzen.

Gaueko ibillera
bide ona etzan,
orain gauean pesta
ta egunez etzan.
Nai dan guzia egin
illunan babesan,
zenbat aldatu geran
ezin leike esan.

Lengo lege asko're
estuak ziraden,
apaizaren bildurrez
bizitzen giñaden.

Gurasoak bestetik
Aitaren da amen,
orain errespetuak
galdu dira emen.

Guraso jende dana
kezkatua dago;
gauza ezin leikela
okertu geiago,
pestatik bakarrikan
ez degula jango.
gaur pamili askotan
naiko lan badago.

Neurri batean ezin
gera errenditu,
eta gastuak berriz
ederki aunditu.
bildurra eta kezka
berriz ugaritu,
gure erri maiteak
komeriak ditu.

AZKEN AGURRA

Nere lan onek, an edo emen gabiltzan artean, ez luke azkenik. Baña asiera zuan bezelaxe, bukaera ere eman egin bear, ta orixe pentsatu det.

Ez dakit zer grazi egingo duan. Oraindik orain, gizon jakintsu edo izlari bati au entzun genion: Euzkadi'ko literatura urria eta pobrea dala beste erriakin konparatzeko.

Nere onekin ez da asko aberastuko. Baña bertsolari ta bere inguruko giroa bada zerbait Euskalerrian.

Egunen batean ori galduko balitz, «erri bat izan zan» esan bear ko degu.

Ta, besterik gabe, askotan esan oi degun bezela: Gaizki esanak barkatu.

*Garmendia'tar Txomin
(Uztailak 19, 1982'an, Berrobi'n.)*


ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Zabala*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalaparrak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).

30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. M. Soroa: Baratzen. (*Aitua*).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara. (*Aitua*).
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. Bertsolariak: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. J. R. Zubillaga: Lardasketa. (*Aitua*).
42. Uztapide: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965). (*Aitua*).
44. P. Larzabal: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. J. M. Satrustegui: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. J. M. Urruzuno: Iru ziri. (*Aitua*).
48. P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. A. Zavala: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. P. M. Urruzuno: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. G. Anduaga: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. A. Zavala: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. Basarri: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. A. Zavala: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. C. Beobide. Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. A. Zavala: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. A. Zavala: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. A. Zavala: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. A. Zavala: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).
- 63-64. A. Zavala: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. J. M. Satrustegui: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. A. Zavala: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. A. Zavala: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. A. Iturriaga: Ipuiak. (*Aitua*).
73. A. Zavala: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. A. Zavala: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. A. Zavala: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. A. Zavala: Paulo Yanzi ta bere lagunak bertsoak. (*Aitua*).

- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria. (*Aitua*).
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika eta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabea. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90 *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-emeak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria: (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Uste ezin zan ganbara.
127. *M. Arozameha*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baño-mutillak.

135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan.
153. *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.



AUSPOA
LIBURUTEGIA